

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Ermuko Udala

Ayuntamiento de Ermua

2018





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK.....	7
I. SARRERA.....	9
II. IRITZIA.....	10
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	10
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	11
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	12
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	12
III.2 Langileria	12
III.3 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak	13
III.4 Kontratazioa	13
III.5 Beste batzuk	14
IV. FINANTZAREN ANALISIA.....	15
V. URTEKO KONTUAK.....	19
V.1 Udala	19
V.2 Udal erakunde autonomoak.....	22
V.3 PROMOSA udal sozietatea	24
ERANSKINAK	25
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera.....	25
A.2 Aurrekontua eta kontabilitatea	25
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak	26
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak	27
A.5 Langileria-gastuak.....	28
A.6 Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa	29
A.7 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	30
A.8 Inbertsio errealak eta aktibo ez arrunta.....	31
A.9 Zorpetzea	32
A.10 Zordunak.....	32
A.11 Hartzekodunak	33
A.12 Hirigintzako jarduerak eta plangintza.....	34



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.13 Ermuko IMD erakunde autonomoa.....	35
A.14 "Udal euskaltegi publikoa fundazioa" erakunde autonomoa	36
A.15 PROMOSA udal sozietatea	37
A.16 Kontratazioa	40
ALEGAZIOAK	43
BOTO PARTIKULARRA	51
ABREVIATURAS	53
I. INTRODUCCIÓN	55
II. OPINIÓN.....	56
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad	56
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	57
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	58
III.1 Presupuesto y contabilidad.....	58
III.2 Personal	58
III.3 Transferencias y subvenciones concedidas.....	59
III.4 Contratación	59
III.5 Otros.....	60
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	61
V. CUENTAS ANUALES	65
V.1 Ayuntamiento	65
V.2 OOOA municipales.....	68
V.3 Sociedad municipal PROMOSA.....	70
ANEXOS	71
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	71
A.2 Presupuesto y contabilidad	71
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	72
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	73



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.5 Gastos de personal	74
A.6 Compra de bienes corrientes y servicios	75
A.7 Transferencias y subvenciones concedidas	76
A.8 Inversiones reales y activo no corriente	77
A.9 Endeudamiento	78
A.10 Deudores.....	78
A.11 Acreedores	79
A.12 Actuaciones urbanísticas y planeamiento	80
A.13 OA IMD de Ermua	81
A.14 OA Fundación Pública "Euskaltegi Público Municipal"	82
A.15 Sociedad municipal PROMOSA	83
A.16 Contratación	86
ALEGACIONES	89
VOTO PARTICULAR	99

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 29a
Vitoria-Gasteiz, a 29 de octubre de 2020





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

AMAS	Autonomia Sistema eta Mendekotasunari Arreta.
AO	Administrazio Orokorra.
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
BLH	Bizkaiko Lurralde Historikoa.
BPG	Barne Produktu Gordina.
DLO	38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
EA/EEAA	Erakunde autonomoa / Erakunde autonomoak.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
ED	Errege Dekretua.
EFPL	6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.
EIOZ	Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga.
EPE	Enplegu Publikoaren Eskaintza.
EPOE	5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 2011ko urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duena.
FA	Foru Araua.
GLL	Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.
GODG	Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.
HAPO	Hiri Antolaketako Plan Orokorra.
HHS	Hiri-hondakin solidoak.
HILBIZ	Hiri izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
JU	Jardun Unitatea.
KUE	Udal Kirol Erakundea.
LOP	Lurraren Ondare Publikoa.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
OLH	Oinarrizko Lanbide Heziketa.
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.
PGPN	Publikotasunik Gabeko Prozedura Negoziatua.
PROIMERSA	Promoción Inmobiliaria Municipal de Ermua, SA.



SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duena.
TAOAL	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.
TMIZ	Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga.
TTEE	Toki Entitateak.
XG	Xedapen Gehigarria.



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko Bilkurak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Ermuko Udalaren 2018ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: aurrekontuaren honako atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatzen ditu: Udalaren, bere erakunde autonomoen eta udal sozietate publikoaren balantzea, ondarearen emaitza ekonomiakoaren kontua eta oroitidazkia ez ezik, Udalaren eta bere erakunde autonomoen aurrekontuaren likidazioa ere bai.

Sozietate publikoen kontuei dagokienez, gure lana kanpoko enpresek gauzatutako auditoretzako txostenak aztertzea izan da eta horretarako, beharrezko iritzitako proba osagarriak edo auditoretzako beste zenbait prozedura bideratu ditugu.

- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Ermuko udalerriak 15.890 biztanle zituen 2018ko urtarrilaren 1ean eta bere antolamenduan, Udalaz gain, honako hauek besarkatzen ditu: Ermuko IMD (ikus A.13) eta Udal Euskaltegi Publikoa Fundazio Publikoa (ikus A.14) erakunde autonomoak eta PROMOSA Promoción Económica de Ermua, SA sozietate publikoa, % 100ean partaidetua (ikus A.15).

Berebat, honako erakunde hauetako kide ere bada: Debarrena Eskualdeko Mankomunitatea (HHSen kudeaketa eta kale garbiketa) eta Gipuzkoako Uren Partzuergoa (uraren ziklo osoaren kudeaketa). Gainera, Izarra Fundazioaren babesle nagusi da eta partaidetza txikiak ditu zenbait sozietatetan (ikus A.8).



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

LANGILERIA

1. Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak 2002ko ekitaldiko fiskalizazio-txostenean jada adierazi zuen moduan, Udalak eta Erakunde autonomoak pentsioen sistema osagarriko ordaindutako ordainsari-kontzeptua ez zaio araudi erregulatzailerari egokitzen. 2018an kontzeptu honengatik ordaindutako kopurua, hurrenez hurren 63.544 eta 4.320 euro izan da.

KONTRATAZIOA

2. Ermuko IMDk 467.774 euroan esleitutako kontratu batean, esleipendunaren eskaintza ez zitzaien pleguei egokitzen eskatutako gutxieneko baliabideei zegokienez (ikus 6. espedientea A.16.1en). Proposamena kanpoan utzi behar zatekeen eta lizitatzailerik gehiago aurkeztu ez zenez gero, prozedura bete gabe utzi.
3. 2018an Udalak eta PROMOSAk hiru zerbitzuren eta bi horniduraren gastuak kontratatu zituzten esleipen-prozedurari zegozkion betekizunak saihestuta, guztira 205.759 eta 96.957 euroren zenbatekoan, hurrenez hurren, eta publikotasun-printzipioak eta lehia urratuta (ikus A.16.2).
4. 2018ko ekitaldian Udalak bi zerbitzuri zegozkien gastuak egikaritu zituen kontratuen indarraldia amaitu ostean harik eta esleipen berriak indarrean sartu arte 150.044 euroren zenbatekoan (ikus A.16.2).

Epaitegi honen iritzira, Ermuko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek, 1etik 4ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete dute 2018ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Epaitegi honen iritzira egin behar ziratekeen doitzeez ondotik zehaztutako eragina dute Udalaren 2018ko abenduaren 31ko gastu orokorretako diruzaintza geldikinaren eta ondare garbiaren gainean:

KONTZEPTUA	GODG	Euroak milakotan		
		AKTIBOA	PASIB.	ONDARE GARBIA
A.4 Kontabilizatu gabeko Udalkutxa 2018aren likidazioa.....	657	657	-	657
A.10 Zalantzako kobragarritas. saldoen balioespenaren zuzenketa.....	(101)	(101)	-	(101)
A.12 Lursail bat besterentzeagatik sarrerak, itxieran zorpetu gabeak.....	(486)	-	-	-
UDALA GUZTIRA	70	(556)	-	(556)

2. Ez dago euskarri egoki eta behar hainbatekorik Udalaren 2018ko abenduaren 31ko Balantzearen ibilgetu ez finantzarioko eta amortizazio metatuko saldoek ondasun eta eskubideen egiazko egoera jasotzen duten jakiteko, ezargarriak zaizkien balorazio-printzipio eta -arauei jarraikiz (ikus A.8). Gauza bera gertatzen da udal erakunde autonomoekin; aldea da ez dagoela amortizazio metatuko saldorik, ez baitute ibilgetua amortizatzeke zuzkidurarik egiten.

Epaitegi honen iritzira, 1 eta 2. paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Ermuko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeen kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2018ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2018ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra ez zen behin betiko onartu 2017ko abenduaren 31 baino lehenago, ezargarrria zaion aurrekontuko araudiak agintzen duen moduan (ikus A.2).
- Gastu araua ez bada betetzen diruzaintza geldikin bidez gastuak finantzatu direlako dena delako entitatearen finantzaren iraunkortasuna kolokan jarri gabe, Udalbatzari jakinarazi behar zaio, aurreikusia dagoen moduan, eta ez zen hala jokatu (Bizkaiko toki entitateen ekainaren 12ko Aurrekontuaren egonkortasunari eta finantzaren iraunkortasunari buruzko 5/2013 FAREN 6.5 artikuluan xedatutakoa), izan ere Udalak murriztu egin baitzituen gastu horiek gastu zenbagarria kalkulatzeko, eta bariazioak ez zuela erreferentziatzeko tasa gainditzen ondorioztatu baitzuen (ikus IV. atala).
- 2018ko ekitaldiari dagokion Aurrekontua Egikaritzeko Arauak ez zituen zehazten erakunde autonomoei eta udal sozietate publikoei bermeak emateko eta zorpetzeko gehieneko mugak. Azken honen zorpetze-zifra, aipatutako ekitaldi itxieran, 9,7 milioi euro zen (ikus A.15).
- Ekitaldiko finantzaketaren desbideratzeak negatiboak dira 28.326 euroan eta ez 73.077 euroan; eta gastu orokorretarako diruzaintza geldikin bidez finantzatutako gastuak 1,8 milioi euro dira eta ez 2,1 milioi euro; honenbestez, doitutako aurrekontuaren emaitza likidazioak jasotakoa baino 318.592 euro txikiagoa da. Adierazitako zuzenketek ez dute eraginik izan Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikinean.
- Udalak egoeraren balantzeko epe luzeko finantza inbertsioen saldoak berrikusi behar lituzke eta zuzen esleitu partaidetzen balioa PROIMERSAn, desegindako sozietatea, eta PROMOSAn (ikus A.8).
- “Udal Euskaltegi Publikoa” Fundazio Publikoa erakunde autonomoak ez ditu zuzen kontabilizatzen gastuaren baimen eta erabilera faseak.

III.2 LANGILERIA

- Udalaren LZk ez ditu hiru postu barne hartzen (arkitektoa, lorezaina eta administraria), plantillako egiturazko beharrian direnak, eta behar horiek lan kontratu mugagabe ez finkoko langileek betetzen dituzte, programako bitarteko funtzionarioak izendatuta.
- Udalaren zerbitzura diharduten langileen lan baldintzak arautzen dituzten akordioak ez dira BAOn argitaratu.
- Ez da EAOn enplegu publikoaren eskaintza argitaratu.



- Udal Euskaltegi Publikoa fundazio publikoak 2018ko urtean egindako aldi baterako lan-kontratuko langileen bi kontrataziotan, epe motzekoak, ez da egiaztatu hautaketa-prozedurarik batere egin denik.
- Ermuko IMDren LZko lanpostu huts bati dagozkion egitekoak 2015az geroztik aldi baterako lan kontratua duen langile batek egiten ditu (ikus A.13).

III.3 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

- Ez da betetzen Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari informazioa emateko obligazioa, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 20. artikulua arautzen duena.

III.4 KONTRATAZIOA

- Udalak ez ditu udal kudeatzaileen eta zerbitzu-kontratuen esleipendun diren enpresetako langileen arteko harremana argitzeko jarraibideak finkatu, lan-harreman bat aitortzeko erabakigarritzat jo litezkeen ekintzak saihestearren, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuaren 1. xedapen gehigarriak agintzen duen moduan.

Kontratazio-espedienteak (ikus A.16.1)

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden zortzi kontratu aztertu ondoren, honako alderdi hauek azalera zuen:

- Guztira 3,1 milioi euroan esleitutako 5 kontratutan (2, 3, 4, 5 eta 6 zk. espedienteak), ez da jaso pleguak onartu aurretiko kontu-hartzailearen txostena.
- 159.357 euroan esleitutako kontratu baten pleguetan barne hartutako formula aplikatzean (5 zk. espedienteak), prezio batek lizitazio tipoa berdinduz gero, puntuazio positiboa eskuratuko luke eskaintza ekonomikoaren irizpidea baloratzean.
- Guztira 3,1 milioi euroren zenbatekoan esleitutako lau kontraturen pleguek (1, 2, 3 eta 6 espedienteak) ez dute apirilaren 7ko 3/2016 Legeak agindutako hainbat ohar edo informazio jasotzen, kontratazio publikoan klausula sozial jakin batzuk barne hartzeari dagokionez. Gainera, aipatutako kontratuen esleipen ebazpenek ere ez dute ezargarria den hitzarmen kolektiboari buruzko informaziorik jasotzen, aipatutako arauak agintzen duen moduan.
- 4,1 milioi euroan esleitutako bi kontratutan (3 eta 7 zk. espedienteak), kontratazio-mahaiaren ekintzetan mahaia ez zegoen balio osoz eratua, nahitaez bertan egon behar duten kideetarik baten bat ez zegoelako.
- Guztira 1,2 milioi euroan esleitutako bi zerbitzuren (3 eta 6 zk. espedienteak) esleipen-ebazpenetan eta gauzatutako kontratuetan jasotako prezioa urteko batean fakturatutako zenbatekoa da, bi kontratuetan kontratua betetzeko epea guztira bi urtekoa izanik. Kontratu horietako batean, behin betiko bermearen zenbatekoa kalkulatzeko ere urteko bakarra hartu zen aintzat.



- 626.209 euroan esleitutako bi obra-kontraturen egikaritzan (1 eta 4 espedienteak) berandutzak izan dira kontratua betetzean eta ez da epe luzaketarik batere bideratu edo ez zaio kontratistari zehapenik batere ezarri. Lehenengo kasuan atzerapena 3 hilabetekoa izan zen kontratua betetzeko 4 hilabeteko epearen gainean eta horri beste hilabete bateko atzerapena gehitu behar zaio lanei hasiera ematean. Beste kasuan, atzerapenak 1. lotea eragin zuen eta 2 urtekoa izan zen, kontratua betetzeko zegoen 20 eguneko epearen gainean.

Administrazioko kontratazio-espedienterik gabeko gastua

- PROMOSAK egindako beste erosketa batzuk aztertzean ikusi da zuzenean esleitu dela IZARRA eraikina garbitzeko zerbitzua, 30.360 euroren zenbatekoan; ordea, prozedura ireki erraztu laburtu bidez esleitu behar zatekeen.

III.5 BESTE BATZUK

Ondarea eta ondasun-zerrenda

- Udalak ez du Udalbatzak onartutako ondasun eta eskubide guztien zerrendarik.

Gardentasuna

- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea zuzen betetzeko, Udalak webgunean argitaratu behar lituzke, besteak beste, urteko kontuak eta izenpetutako hitzarmenei eta emandako dirulaguntza eta laguntzei buruzko datu gaurkotuak.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeei buruzko informazioa

- 2018ko urtean ez ziren mamitu hornitzaileei ordainketarako aurreikusitako epeak bete izanari buruzko hiruhileko txostenak.



IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	URTEA			URTEA		
	2016(*)	2017(*)	2018	2016	2017	2018
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	5.888	6.160	6.225	367	386	392
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.)	12.004	11.849	12.913	749	743	813
Ondare sarrerak (5. kap.)	69	88	72	4	6	4
A. Diru-sarrera arruntak	17.961	18.097	19.210	1.120	1.135	1.209
Langile-gastuak (1. kap.).....	6.239	6.398	6.761	389	401	426
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.)	5.263	5.153	5.229	328	323	329
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.)	4.554	5.179	4.814	284	325	303
B. Funtzionamendu gastuak.....	16.056	16.730	16.804	1.001	1.049	1.058
Aurrezki gordina (A-B).....	1.905	1.367	2.406	119	86	151
- Finantza gastuak (3. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Emaitza arrunta.....	1.905	1.367	2.406	119	86	151
- Maileguren amortizazioa (9. kap.).....	558	943	117	35	59	7
Aurrezki garbia	1.347	424	2.289	84	27	144
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.).....	-	166	486	-	10	31
Jasotako kapitaleko dirulaguntzak (7. kap.).....	1.167	240	34	73	15	2
- Inbertsio errealak (6. kap.)	2.674	919	2.345	167	57	148
- Emandako kapitaleko dirulaguntzak (7. kap.).....	-	28	-	-	2	-
Kapitalezko eragiketen emaitza	(1.507)	(541)	(1.825)	(94)	(34)	(115)
Eragik. ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.).....	398	826	581	25	52	36
Diruzaintza Geldikina	4.372	4.052	4.229	273	254	266
Gastu orokorretarako diruzaintza-geldikina	4.372	3.979	4.229	273	249	266
Zorpetzea.....	248	130	876	16	8	55

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: % 7 egin dute gora aztertutako aldiaren eta igoera nagusiki 2018an gertatu da. Hona hemen bariazio azpimarragarrienak:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak:** Sarrera hauek % 6 egin dute gora aztertutako aldiaren, baina sarrera arrunten multzorako adierazitakoaren aldean, igoerarik handiena 2017ko ekitaldian gertatu da.
 - **Zerga zuzenak:** % 2 egin dute gora aztertutako aldiaren, batik bat, 2017an izandako igoeraren eraginez. Ondasun higiezinaren gaineko zergen diru-sarrerak eragin dute bariazioa nagusiki eta esan behar da, 2016an katastro-balioak gaurkotu zirela eta 2017ko urtarilaren leian sartu zirela indarrean.
 - **Tasak eta bestelako sarrerak:** Diru-sarrera hauek % 7 egin dute gora 2017ko ekitaldian aurreko ekitaldiaren aldean, eta 2018an % 3ko igoera izan zuten berriz; horrek aztertutako aldiaren guztira igoera % 10 izatea ekarri du. 2017an izandako igoera, batik bat, zabor-bilketagatik tasari dagozkion sarreraren eboluzioari dagokio.



Esan behar da Udalak igo gabe eutsi ziela ia tasa guztiei 2017an, adierazitakoa izan ezik, zeina % 5,21 igo baitzen.

- **Transferentzia eta dirulaguntza arruntak:** Sarrera arruntek 2018ko ekitaldian izandako igoera zor zaio kapitulu honetan eskubide aitortuek izandako bilakaerari, zeinak ekitaldi horretan % 9 egin baitute gora aurreko ekitaldiaren aldean. Igoera nagusiki BFAtik eratorritako sarrerek eragin dute eta zehatzago, Udalkutxa eta Autonomia Sistema eta Mendekotasunari Arreta emateko funtsetatik eratorritako sarrerek. Esan behar da 2017an, Estatuarekin kupoaren akordioa izenpetu ostean berrabiarazi zirela funts horien ordainketak, ordura arte izoztuak egon baitziren. 2012-2016 aldiari dagozkion kopuru atzeratuak 2017ko maiatza eta 2018ko abendua bitartean erregularizatu dira.

Funtzionamendu-gastuak: Aztertutako aldian % 5eko igoera izan zuten, sarrera arruntek izandakoaren aldean bi puntu azpitik. Hona hemen alderdi esanguratsuenak aurrekontuko kapituluaren arabera:

- **Langile-gastuak:** 2017an langile-gastuek % 2,5 egin dute gora aurreko ekitaldiarekiko eta 2018an berriz egin zuten gora, % 5,7; honenbestez, aztertutako aldiaren bariazioa guztira % 8tik gorakoa izan da. 2018ko gastu igoera dela-eta, aparteko eragina izan du Lanbideek finantzatutako enplegu planen bitartez kontratatutako langileen kostuak (ikus A.5).
- **Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa:** % 2 egin dute behera aurreko ekitaldiaren aldean eta nahiz 2018an ehuneko horren ia pareko igoera izan zen, bariazio garbia negatiboa da doi-doi.
- **Transferentzia eta dirulaguntza arruntak:** Kontzeptu honek eragindako gastuak % 14 egin zuen gora 2017ko ekitaldian aurreko ekitaldiaren aldean eta 2018an behera egin zuen gastuak; horren ondorioz, aztertutako aldian bariazioa guztira % 6 ingurukoa izan da. 2017ko ekitaldian izandako gastuari dagokionez, eragin berezia izan dute udal erakunde autonomoei eta Debabarreneko Eskualdeko Mankomunitateari egindako ekarpenak. Gastuak 2018an izandako murrizketa, nagusiki Izarra Fundazioari egindako ekarpena urritu izanak eragin du.

Aurrezki gordina eta aurrezki garbia: Bi magnitudeek saldo positiboa izan dute aztertutako aldiko hiru ekitaldietan eta antzeko bilakaera izan dute, 2017an aurreko ekitaldiarekiko beheranzko bariazioa izanik eta goranzkoa 2018an; nabarmenagoak izan dira, baina, aurrezki garbiaren kasuan, aztertutako aldian % 70eko igoera izan baitu; aurrezki gordinaren igoera % 26 ingurukoa izan da.

Kapital eragiketen emaitza: Magnitude honek saldo negatiboa izan du aztertutako aldi guztian, nahiz epe horretan sortutako aurrezki garbiak kapital-eragiketen defizit horri aurre egiteko lain eman duen.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Eragiketa ez-finantzarioen emaitza: Positiboa izan da aldi osoan eta % 46 egin du gora epe horretan.

Diruzaintza-geldikina: Ez du aldaketa esanguratsurik izan eta 4 milioi inguruko zifretan mugitu da aztertutako aldian, Epaitegi honek proposatutako doiketak aintzat hartuta ere.

Zorpetzea: Nabarmen egin du gora aztergai izan dugun aldiaren hasierarekiko (% 253), 2018an hitzartutako eragiketa berriaren eraginez, 862.782 eurorena (ikus A.9). Gainera, PROMOSAren zorpetzea hartu behar da aintza, 9,7 milioi euroren zenbatekoan (ikus A.15).

Ondorioa: Udalak egoera ekonomiko osasuntsua erakusten du eta behar hainbateko baliabideak ditu ohiko jarduerari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu beharrik izan gabe aurre egiteko.

Aurrekontuaren egonkortasuna: Udalaren Kontu-hartzaitzak txostena egin du aurrekontuaren egonkortasun printzipioa eta gastuaren eta zor publikoaren araua betetzen dela adieraziaz. Txostenak Udalari eta bere erakunde autonomoei dagokienez honako hau jasotzen du 2018ko ekitaldiko aurrekontuen likidazioa dela-eta:

- Aurrekontuaren egonkortasun helburua bete da, termino kotsolidatuetan eragiketa ez finantzarioen superabita izan baitu.
- Gastuaren araua bete da, izan ere 2017ko ekitaldiaren aldean zenbakarria den gastuaren bariozioak –diruzaintza geldikin bidez finantzatutako gastuak aintzat hartu gabe- ez zuen Espainiako ekonomiaren epe ertaineko BPGren erreferentziazko hazkuntza tasa gainditu (% 2,4).
- Zor publikoaren helburua bete da, 2018ko abenduaren 31ko zor biziak ez baitu 2017an kitatutako sarrera arrunten % 60 gainditu.





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2018KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE KITAT.	KOB.R. KOB.R.	KOB.R. GABE	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1. Zerga zuzenak	A.3	3.347	-	3.347	3.316	3.136	180	% 99
2. Zeharkako zergak	A.3	215	-	215	258	226	32	% 120
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	2.683	-	2.683	2.651	2.075	576	% 99
4. Transferentzia arruntak	A.4	12.279	381	12.660	12.913	12.630	283	% 102
5. Ondare-sarrerak.....		74	-	74	72	72	-	% 97
6. Inbertsio errealen besterentzea	A.12	965	-	965	486	-	486	% 50
7. Kapital transferentziak	A.4	107	-	107	34	27	7	% 32
8. Aktibo finantzarioak		24	2.430	2.454	9	1	8 (*)	% 38
9. Pasibo finantzarioak.....	A.9	2.170	-	2.170	863	863	-	% 40
SARRERAK GUZTIRA		21.864	2.811	24.675	20.602	19.030	1.572	(*)93

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza-geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAINK. ORDAIN.	ORDAIN. GABE	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1. Langileria-gastuak.....	A.5	6.888	374	7.262	6.761	6.601	160	% 93
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. kontrat. ...	A.6	6.238	252	6.490	5.229	4.390	839	% 81
3. Gastu finantzarioak.....		8	-	8	-	-	-	E/E
4. Transferentzia arruntak	A.7	5.160	-	5.160	4.814	4.462	352	% 93
6. Inbertsio errealak	A.8	3.325	1.185	4.510	2.345	1.625	720	% 52
8. Aktibo finantzarioak	A.8	24	1.000	1.024	1.009	1.009	-	% 99
9. Pasibo finantzarioak.....	A.9	221	-	221	117	117	-	% 53
GASTUAK GUZTIRA		21.864	2.811	24.675	20.275	18.204	2.071	% 82

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	ZUZENK./	KOB.R./	AZKEN
		ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA
Kobratzeko dauden saldoak	A.10	2.135	29	945	1.161
Ordaintzeko dauden saldoak.....		1.293	4	1.265	24
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA			(25)		



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak.....	20.602
Obligazio aitortuak.....	(20.275)
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	327
AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	(25)
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	302
Finantzaketako desbideratzeak.....	73
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	2.086
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	2.461

DIRUZAINZAKO GELDIKINA	Euroak milakotan
DIRUZAINZAKO FUNTS LIKIDOAK (A)	5.002
KOBRAZTEKO DAUDEN SALDOAK 2018/12/31N (B)	2.836
Sarreraren aurrekontutik, arrunta (ikus A.10)	1.572
Sarreraren aurrekontuetatik, itxiak (ikus A.10).....	1.161
Bestelako eragiketa ez aurrekontukoak (ikus A.10).....	103
ORDAINTZEKO DAUDEN SALDOAK 2018/12/31N (ikus A.11) (C)	2.697
Gastuen aurrekontukoa, arrunta	2.071
Gastuen aurrekontukoa, itxiak	24
Bestelako eragiketa ez aurrekontukoak	602
APLIKATZEKO DAUDEN KONTU-SAILAK (ikus A.11) (D)	(82)
DIRUZAINZAKO GELDIKINA GUZTIRA (F=A+B-C+D)	5.059
Zalantzasako kobragarritasuneko saldoak (ikus A.10).....	(830)
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako geldikina.....	-
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA	4.229
ZORPETZEA 18.12.31N (ikus A.9)	876



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEAK 2018 ETA 2017KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	ERANSKINA	2018	2017		ERANSKINA	2018	2017
AKTIBO EZ ARRUNTA		98.199	95.586	ONDARE GARBIA		101.549	99.494
Ibilgetu ukiezina.....	A.8	555	524	Ekarritako ondarea.....		27.286	27.286
Ibilgetu materiala.....	A.8	81.540	79.897	Sortutako ondarea.....		73.113	70.965
Ibilgetuko inbertsioak.....	A.8	52	30	Jasotako dirulag.,egotzi gab.....		1.150	1.243
Lurraren ondare publikoa.....	A.8	1.268	1.351				
Taldeko enpresetan inbertsioak	A.8	14.784	13.784				
				PASIBO EZ-ARRUNTA	A.11	863	14
				Epe luzeko zorrak		863	14
AKTIBO ARRUNTA		7.008	5.886	PASIBO ARRUNTA	A.11	2.795	1.964
Zord. eta kobr. bst knt b.	A.10	1.510	1.420	Epe motzeko zorrak		896	541
Finan. inberts. epe labur.....	A.10	496	11	Hartzek. eta ordaintz. bst kontu batz.		1.899	1.423
Eskud. eta best. akt. baliok.	(*)	5.002	4.455				
AKTIBOA, GUZTIRA		105.207	101.472	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA		105.207	101.472

(*) 2018ko ekitaldi itxierako saldoa ia oso-osorik kontu korranteetako gordailuei dagokie, eskudiruko 250 euro izan ezik.

2018 eta 2017KO EKITALDIETAKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA

Euroak milakotan

	2018	2017
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak.....	6.028	6.175
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.....	13.040	11.944
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa	55	29
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....	167	162
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	19.290	18.310
Langileria-gastuak	(6.761)	(6.399)
Emandako transferentzia eta dirulaguntzak.....	(4.814)	(5.207)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.	(5.218)	(5.165)
Ibilgetua amortizatzea.....	(37)	(99)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(16.830)	(16.870)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	2.460	1.440
Bajak eta besterentzeak	(209)	(105)
Arruntak ez diren beste partida batzuk	20	(811)
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	2.271	524
Sarrera finantzarioak.....	26	33
Gastu finantzarioak.....	-	-
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	(122)	(111)
FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZAK	(96)	(78)
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	2.175	446



V.2 UDAL ERAKUNDE AUTONOMOAK

2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	IMD	ERANSK.	EUSKALTEGIA
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.13	786	A.14	11
4. Transferentzia arruntak	A.13	941	A.14	185
5. Ondare-sarrerak		5		-
ESKUBIDE KITATUAK GUZTIRA		1.732		196
1. Langileria-gastuak	A.13	383	A.14	142
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa		1.258		15
3. Gastu finantzarioak		-		-
4. Transferentzia arruntak		-		2
6. Inbertsio errealak		63		-
AITORTUTAKO OBLIGAZIOAK GUZTIRA		1.704		159
SARRERAK - GASTUAK		28		37

AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

	IMD	EUSKALTEGIA
Ekitaldiaren emaitza	28	37
Ekitaldi itxien emaitza	-	1
AURREKONTUAREN EMAITZA	28	38
Diruzaintza geldikinarekin finantzaturako obligazioak	80	-
Finantzaketako desbideratzeak	-	-
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	108	38

DIRUZAINZAKO GELDIKINA

Euroak milakotan

	IMD	EUSKALTEGIA
Diruzaintza	462	271
Aurrekontuko zordunak	13	4
Aurrekontuz kanpoko zordunak	-	-
Aurrekontuko hartzekodunak	(193)	(4)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	(28)	(6)
Aplikatzeko dauden partidak	(4)	-
DIRUZAINZAKO GELDIKINA	250	265
Finantzaketa atxikia duten gastuet. diruzaintza geldikina	-	-
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA	250	265



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2018KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	IMD	EUSKALTEGIA
AKTIBO EZ ARRUNTA	2.460	51
Ibilgetu ukiezina.....	-	-
Ibilgetu materiala.....	2.433	51
Lurraren Ondare Publikoa.....	27	-
Epe luzeko finantza-inbertsioak.....	-	-
AKTIBO ARRUNTA	475	275
Zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk e/lab.....	13	4
Epe motzeko finantza inbertsioak.....	-	-
Eskudiru eta beste aktibo lik. baliok.....	462	271
AKTIBOA	2.935	326
ONDARE GARBIA	2.710	315
Ondarea.....	36	33
Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	2.579	245
Ekitaldiaren emaitza.....	92	37
Aplikatzeko dauden jasotako dirulaguntzak.....	3	-
PASIBO EZ-ARRUNTA	-	-
PASIBO KORRONTEA	225	11
Epe motzeko zorrak.....	30	-
Hartzekod. eta ordaintzeko beste kontu batzuk epe laburrean.....	195	11
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2.935	326

2018KO EKITALDIKO EKONOMIAREN ETA ONDAREAREN EMAITZAREN KONTUA

Euroak milakotan

	IMD	EUSKALTEGIA
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak.....	779	11
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.....	942	185
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa.....	-	-
Kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk.....	13	-
Langileria-gastuak.....	(383)	(142)
Emandako transferentzia eta dirulaguntzak.....	-	(2)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk.....	(1.259)	(15)
Ibilgetua amortizatzea.....	-	-
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	92	37
Beste kontu-sail ez arrunt batzuk.....	-	-
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	-	-
Sarrera finantzarioak.....	-	-
Gastu finantzarioak.....	-	-
Finantza aktibo eta pasiboen balio-narriadura.....	-	-
FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZAK	-	-
EKITALDIAREN EMAITZA	92	37



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.3 PROMOSA UDAL SOZIETATEA

EGOERAREN BALANTZEAK 2018 ETA 2017KO ABENDUAREN 31N				Euroak milakotan			
	ERANSKINA	2018	2017		ERANSKINA	2018	2017
AKTIBO EZ ARRUNTA		10.960	10.841	ONDARE GARBIA		14.683	14.190
Ibilgetu ukiezina.....		1	1	Kapitala	A.15	11.382	10.382
Ibilgetu materiala		5.097	5.096	Jaulkipen prima.....		6.261	6.261
Ibilgetuko inbertsioak.....		5.237	5.118	Erreserbak.....		80	80
Epe luzeko finantza inberts.		618	618	Aurreko ekitaldien emaitzak.....		(3.392)	(2.776)
Geroratutako zergag. aktib.....		7	8	Ekitaldiaren emaitza		(498)	(616)
				Dirulag., dohain. eta jasot. legat.....		850	859
AKTIBO ARRUNTA		14.159	15.388	PASIBO EZ-ARRUNTA		9.403	10.568
Izakinak	A.15	13.928	14.911	Epe luzeko zorrak.....	A.15	9.134	10.234
Zord. eta kobr. bst knt b.		102	311	Gerorat. Zergag. pasiboak.....		269	334
Aldizkatzeak epe motzera		39	46	PASIBO KORRONTEA		1.033	1.471
Eskud. eta best. akt. baliok.		90	120	Epe motzeko hornidurak		28	28
				Epe motzeko zorrak	A.15	550	1.169
				Hartzek. eta ordaint. bst knt b.....		455	274
AKTIBOA, GUZTIRA		25.119	26.229	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA		25.119	26.229

2018 ETA 2017KO EKITALDIEN GALERA-IRABAZIEN KONTUAK				Euroak milakotan			
	ERANSKINA	2018	2017		ERANSKINA	2018	2017
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	(*)	770	-				
Amaitutako eta fabrikazioan dauden produktuen izakinak gehitzea	A.15	(983)	43				
Enpresak aktiborako egindako lanak.....		-	28				
Indarreko sustapenen izakinak eta ibilgetura gehitutako eraikitako eraikinak		259	-				
Hornikuntzak.....		(58)	(25)				
Bestelako ustiaketa sarrerak	A.15	702	662				
Langileria-gastuak.....	A.15	(139)	(212)				
Ustiapeneko beste gastu batzuk.....		(471)	(502)				
Ibilgetua amortizatzea.....		(413)	(370)				
Ibilgetu ez finantzarioko dirulaguntzak egozte eta beste		74	19				
USTIAPENAREN EMAITZA		(259)	(357)				
Gastu finantzarioak.....		(238)	(259)				
EMAITZA FINANTZARIOA		(238)	(259)				
EMAITZA ZERGA AURRETIK		(497)	(616)				
Etekinen gaineko zerga.....		(1)	-				
EKITALDIAREN EMAITZA		(498)	(616)				

(*) Nagusiki, lokal bat saltzeagatikoko prezioari dagokio, 770.083 euroren zenbatekoan (ikus A.15).

ERANSKINAK

A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA

Ermuko Udala Administrazioiko toki entitatea da, oinarriko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak eta apirilaren 7ko 2/2026 Legeak, Euskadiko Toki Entitateei buruzkoak, arautzen dutena. Lege horiek euren artikuluetan definitzen dituzte udalek dituzten gaitasunak edo ematen dituzten zerbitzu publikoak; aipatzekoak dira besteak beste: segurtasuna, garbiketa zerbitzua, suteak itzaltzea, ura hornitzea, saneamendu sarea, argiteria publikoa, hirigintzako diziplina eta kultur eta kirol jarduerak.

Kudeaketa zuzen edo zeharka udalek eman dezakete. Udalak berak kudeaketa zuzena gauza dezake edo toki entitate autonomoak, merkataritzako sozietate publikoak, mankomunitateak eta partzuergoak sortuta.

A.2 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

2018ko ekitaldirako aurrekontua 2018ko ekainaren 12ko Udalbatzak onetsi zuen hasiera batean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean hil bereko 20an eman zen argitara. Jendaurrean jartzeko epea erreklamaziorik jaso gabe igaro ondoren, behin betiko onartutako aurrekontua 2018ko uztailearen 16an eman zen argitara BAOn.

Hona hemen, 2018ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakaturik:

KAPITULUAK	Euroak milakotan			
	KREDITU GEHIKUNTZA	KREDITU GAIKUNTZA	KREDITU OSAGAR.	GUZTIRA
1. Langileria-gastuak.....	73	201	100	374
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioa	55	180	17	252
6. Inbertsio errealak	736	-	449	1.185
8. Aktibo finantzarioak	-	-	1.000	1.000
GASTUAK GUZTIRA	864	381	1.566	2.811

Adierazitako aurrekontuko ia aldaketa gehienak finantzatu ziren (% 86) Diruzaintza Geldikin erabilgarriaren zati bat baliatuta 2017ko ekitaldi itxieran, 2,4 milioi euroren zenbatekoan, eta gainerakoa, dirulaguntza arrunten bidez.

Ekitaldian aurrekontua aldatzeko lau espediente izapidetu ziren eta horietako hiru Alkatetza Dekretu bidez onartu zituzten; hirugarrena, berriz, Udalbatzara eraman zen onartzeko. 21,9 milioi euroren hasierako aurrekontua % 13 gehitu zen eta behin betiko aurrekontuak 24,7 milioi euro egin zituen. Hona hemen aurrekontuko aldaketa esanguratsuenak:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

	Euroak milakotan
PROIEKTUA	ZENBATEKOA
Kiroldegia sektorizatzeari dagokionez, ebakuazioa eta konpentsazio-neurriak hobetzea (*)	370
Futbol zelaiko belar artifiziala eta Betiondon atletismoko pistaren zoladura hornitu eta berritzea (*)	123
Haur-parkeak berritzea (*)	114
Beste txiki batzuk.....	257
TXERTATUTAKO KREDITUAK GUZTIRA	864
4.0 ingurune berrietarako digitaler-en prestakuntza	176
Beste prestakuntza ekintza batzuk	186
Gaztedi Durangaldea 2017-2019 proiektua	19
GAIKUNTZAK GUZTIRA	381
PROMOSAKO akzioak erostea (ikus A.8)	1.000
Bi komun publiko auto-garbigarri hornitu eta jartzea	100
Beste txiki batzuk.....	466
KREDITU OSAGARRIAK GUZTIRA	1.566

(*) Obra nagusia A.16an aztertua.

2018ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2018ko martxoaren 12ko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra 2019ko uztailaren 23ko Udalbatza bitartez.

A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen 2018ko ekitaldian zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarreraren kontzeptuan kitaturiko eskubideen xehakapena:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	ESKUBIDE KITATUAK
OHZ.....	2.139
TMIZ.....	900
HILBIZ.....	60
JEZ.....	217
ZERGA ZUZENAK GUZTIRA	3.316
EIOZ.....	258
ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA	258
Zabor-bilketagatiko tasa.....	1.783
Gizarte eta kultura zerbitzuengatiko eta fotokopia eta inprimaketa zerbitzuengatiko tasa	164
Lurraren, lur azpiaren edo airearen aprobetxamendu berezia enpresa hornitzaileen alde	157
Ibilgailuak espaloitik sartzegatiko eta bide publikoan aparkalekuak gordetzeagatiko tasa	94
Etxe etxeko laguntza-zerbitzua emateagatiko tasa	72
Izarra Centreko azpiegiturak erabiltzeagatiko prezio publikoa	50
Beste txiki batzuk.....	331
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	2.651
1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA	6.225

BFAk Ermuko Udalari honako zerbitzuok ematen dizkio: OHZ eta JEZ kudeatu, likidatu, ikuskatu eta bildu -bai borondatezko aldiari, bai premiamendukoan-, lankidetzaz hitzarmenen indarrez.

Gipuzkoako Ur Kontsurtzioak Ermuko udalerrian ur-hornidura eta saneamendu zerbitzua ematen du eta bere gain hartzen ditu zerbitzuari lotutako gastuak eta diru-sarrerak ez ezik, baita dagozkion tasak kudeatu eta kobratzea ere, nahiz hitzarmen bat duen Udalarekin honek diru-bilketa epe exekutiboan egiteko. Udalak, gainera, Kontsurtzioari laga dio zabor-bilketagatik tasak borondatezko aldiari kobratzeko kudeaketa-lana.

Erantsitako taulan zerrendatutako gainerako zergak, tasak eta sarrerak direla eta, Udalak bere gain hartua du horien kudeaketa bai borondatezko aldiari bai premiamendukoan.

A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

2018ko ekitaldian transferentzia eta dirulaguntza arrunt eta kapitalezkoen kontzeptuan kitatutako eskubideak honako hauek izan dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ARRUNTAK	KAPITALA
Estatuarenak	22	-
EA Erenak	1.127	34
AO: OLH	475	-
AO: Gizarte Larrialdietarako Laguntzak	213	-
AO: Bigarren mailako irakaskuntz. gelen manten.-lanetako gastuak elkar-finantz.	43	-
AO: Hainbat dirulaguntza	95	34
Lanbide: Prestakuntza	182	-
Lanbide: Enplegu zentroa.....	44	-
Lanbide: Enplegurako orientabidea	43	-
Beste txiki batzuk (IVAP, Emakunde eta Kontsumobide)	32	-
BLHrenak	11.757	-
BFA: Zerga itunduetan partaidetza Udalkutxa.....	10.654	-
BFA: SAAD eta Gizartekutxa	809	-
BFA: Lan-munduan txertatzea eta enplegua sustatzea	102	-
BFA: Gizarte Zerbitzuen Karteraren aparteko funtsa	76	-
BFA: Hainbat dirulaguntza	88	-
Durungaldeko udalak.....	28	-
Irabazi asmorik gabeko entitateenak	7	-
GUZTIRA	12.913	34

Itunpeko zergen kontzeptuan aitortutako sarrerak dira 2018ko ekitaldiko behin betiko likidazioaren konturako entregak eta Udalkutxaren 2017ko behin betiko likidazioa, Udalaren aldekoa, 158.447 euroren zenbaterikoa. 2018ko likidazioa, hau ere positiboa 657.344 euroren zenbaterikoa, ez da sarrera modura erregistratu 2019ko ekitaldira arte (ikus II.2).

A.5 LANGILERIA-GASTUAK

Hona hemen kapitulu honen xehakapena 2017ko eta 2018ko ekitaldietako aurrekontuaren likidazioari, LZn jasotako lanpostu kopuruari eta 2018ko abenduaren 31ko plantillari dagokionez:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	OBLIGAZ.		LANPOSTU KOP.	
	AITORT. 2018	AITORT. 2017	18/12/31 LZ	PLANTILLA
Udalkideen ordainsariak	309	306	E/E	7
Behin-behineko langileen ordainsariak.....	52	52	1	1
Funtzionarioen ordainsariak.....	4.206	4.203	105	(1) 104
Lan kontratupeko langileen ordainsariak.....	305	315	5	(2) 8
Lanbideko enplegu planetako langileen ordainsariak	339	53	E/E	27
Gizarte Segurantza	1.409	1.297		
Aldez aurreko erretiroengatik kalte-ordainak	41	68		
Beste gizarte-gastu batzuk.....	100	104		
LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA	6.761	6.398	111	147

(1) 41 bitarteko funtzionario barne hartzen ditu.

(2) Kontratu finkoa duen pertsona bat, kontratu mugagabe ez finkoduneko sei pertsona eta bat aldi baterako kontratuduna.

Ordainsariak

2018ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 18.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Udaleko langileen ordainsariak % 1,5 gehitu ziren, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta % 0,25eko igoera osagarria izan zuten 2018ko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Plantillaren bilakaera

2018ko ekitaldian izan diren plantillako mugimenduak ondotik laburbildu ditugu:

	Kopurua	
	ALTAK	BAJAK
Behin-behineko langileak.....	1	1
Karrerako funtzionarioak	4	3
Bitarteko funtzionarioak	24	21
Langile lan kontratudun finkoak	-	(*) 1
Aldi baterako lan-kontratuko langileak	9	10
Enplegua sustatzeko aldi baterako lan-kontratuko langileak	38	47
GUZTIRA	76	83

(*) Erretiroa.

Taulan jasotako funtzionarioen altak 2014ko EPetik datozen udaltzainenak dira, behin praktikaldia gainditu ondoren, karrerako funtzionario izaera hartzen dutenak, behin-behineko funtzionario izateari utziz. Horietako bat baja izan da gerora borondatezko



eszedentzia hartuta, eta beste bi bajak dira bata erretiroa hartu duelako eta bestea kargugabetze bat (izendapen askeko lanpostu bat betetzen zuen beste administrazio bateko funtzionarioa).

A.6 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Kapitulu honetan erregistratzen dira ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioari dagozkion gastuak. Hona hemen kontzeptu esanguratsuen xehakapena:

	Euroak milakotan
	OBLIGAZ.
DESKRIBAPENA	AITORT. 2018
Errentamenduak	240
Eraikin eta bestelako eraikuntzak	148
Beste ibilgetu bat	92
Ibilgetuaren konponketak, mantentze lanak eta zaintza	640
Azpiegitura eta ondasun orokorrak	120
Eraikin eta bestelako eraikuntzak	134
Makineria, instalaz. eta tresneriarena	222
Informatikako ekipoak	150
Beste ibilgetu bat	14
Bulegoko materiala	67
Hornidurak	633
Energia elektrikoa	387
Gasa eta erregaiak	124
Bestelako hornigaiak	122
Komunikazioak	86
Garraioak	2
Aseguru primak	76
Hainbat gastu	490
Jarduera soziokulturalak	300
Bestelako hainbat gastu	190
Kanpoko enpresek egindako beste lan batzuk	2.968
Udal eraikinak garbitzeko zerbitzua	603
OLHko programako irakaskuntza zerbitzua	384
Azterketak eta lan teknikoak	331
Ermua Antzokian zinema eta ikuskizunen programazioa	250
Ettxerako laguntza zerbitzua	161
Familiako orientazio zerbitzua	159
Ermua Antzokian sarreren eta zerbitzu osagarrien salmenta telematikoa	116
Arrapalen eta igogailuen mantentze-lana	102
Kanpoko enpresek egindako beste lan batzuk	862
Dietak, mugikortasuna eta lekualdaketak	27
GUZTIRA	5.229



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.7 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

2018ko ekitaldian, Udalak transferentzia eta dirulaguntza arruntak eman ditu; hona hemen xehakapena:

	Euroak milakotan
	ZENBATEKOA
TRANSFERENTZIAK	3.804
Debabarreneko Eskualdeko Mankomunitatea: Bide garbiketa eta HHSen bilketa eta tratamendua (*)	2.546
Ermuko IMD: 2018ko ekarpena (ikus A.13)	940
Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkarte SA: Kudeaketa Planaren finantz. 2018 (*).....	133
“Udal euskaltegi publikoa” fundazioa publikoa: 2018ko ekarpena (ikus A.14).....	96
Talde politikoei transferentziak (*).....	76
Beste txikiago batzuk (5 onuradun)	13
IZENDUNAK	434
Kaltxango Musical elkarte: Musika Eskola (*)	109
Ermua kirol kluba: 2018 Dirulaguntza (*).....	53
Izarra Fundazioa: 2018 Dirulaguntza	50
Beste txikiago batzuk (15 onuradun)	222
LEHIA	511
Gizarte larrialdietarako laguntzak (*)	233
Nazioarteko kooperazio-jarduerak egiteko dirulaguntzak (*).....	58
Kultura eta gazteria jarduerak egiteko dirulaguntzak (*).....	50
Beste txikiago batzuk (14 dirulaguntza lerro)	170
ZUZENAK (23 onuradun)	50
HITZARMENAK	15
GUZTIRA	4.814

(*) Aztertutako transferentzia eta dirulaguntzak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.8 INBERTSIO ERREALAK ETA AKTIBO EZ ARRUNTA

Hona hemen Udalaren aktibo ez arrunteko kontuen 2018ko kontu-mugimenduak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan						
	SALDOA 18/01/08	INBERTS. ERREALAK	INBERTS. FINANTZ.	BESTERENTZ (Ikus A.12)	ESKUALDAK.	NARRIADURA/ AMORTIZ.	SALDOA 18/12/31
IBILGETU UKIEZINA	524	31	-	-	-	-	555
IBILGETU MATERIALA	79.897	2.292	-	-	(480)	(169)	81.540
Lursailak eta ondare naturalak	2.559	37	-	-	(480)	-	2.116
Eraikuntzak.....	38.607	(*) 1.131	-	-	462	-	40.200
Azpiegiturak	35.285	420	-	-	19	-	35.724
Ondare historikoko ondasunak	103	-	-	-	-	-	103
Beste ibilgetu material bat.....	4.681	141	-	-	-	(132)	4.690
Abian dagoen ibilg. eta aurrerak.....	-	563	-	-	(481)	-	82
Amortizazio metatua	(1.338)	-	-	-	-	(37)	(1.375)
IBILGETUKO INBERTSIOAK	30	22	-	-	-	-	52
LURRAREN ONDARE PUBLIKOA	1.351	-	-	(563)	480	-	1.268
FINANTZA INBERTSIOAK	13.784	-	1.000	-	-	-	14.784
AKTIBO EZ KORRONTEA GUZTIRA	95.586	2.345	1.000	(563)	-	(169)	98.199

(*) Kopuru esanguratsuen, 931.800 eurorena, Izarra Centren PROMOSARI erositako areto bati dagokio (ikus A.15).

Bai amortizazio metatua, bai ekitaldian egindako zuzkidurak 2004tik aurrera erositako makineria eta garraio-gaiei dagozkie. Gainerako ondasunak ez dira amortizatzen.

Finantza inbertsioak

2018ko ekitaldian balantzeko finantza inbertsioen idazpuruko saldoek honako osaera eta bilakaera erakusten dute:

KONTZEPTUA	%	Euroak milakotan		
		SALDOA 18/01/01	ALTAK	SALDOA 18/12/31
FINANTZA INBERTSIOAK TALDEKO ENPRESETAN		13.724	1.000	14.724
PROMOSA.....	100%	10.382	1.000	11.382
PROIMERSA.....	(*)	3.078	-	3.078
Bizkaia Sortaldeko Industrialdea SA	3,23%	264	-	264
FINANT. INBERTS. TALDE ANITZ ETA ELKART. ENPRESETAN		60	-	60
Izarra Fundazioa	E/E	30	-	30
AIC Automotive Intelligence Center Fundazioa	E/E	30	-	30
FINANTZA INBERTSIOAK EPE LUZERA GUZTIRA		13.784	1.000	14.784

(*) 2013ko urtean desegindako sozietatea (ikus A.15).

Udalak, gainera % 12,5eko partaidetza du Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkartearen SA sozietatean.



Aktibo finantzarioen kapitulan erregistraturiko gastuak PROMOSaren kapital zabalkuntzari dagozkio, atxikitako taulan jaso dena (ikus A.15), eta langileei emandako aurrerakinen kontzeptuko beste gastu txiki batzuei.

A.9 ZORPETZEA

Zorraren bilakaera ekitaldian honakoa izan da:

ENTITATEA	% INTERESA	EPEMUGA	Euroak milakotan			
			SALDOA 18/01/01	AMORT.	BERRIAK	SALDOA 18/12/31
BBVA SA.....	Mibor + 0,001725	2019	130	117	-	13
Kutxabank SA.....	Euribor 3 hilabete + 0,99	2040	-	-	863	863
ERABILITAKO ZORRA GUZTIRA (ikus A.11)			130	117	863	876

Udala, gainera, PROMOSak Kutxabank SArekin hitzartutako maileguaren abal-emaile da; 2018ko ekitaldi itxieran 4,6 milioi euroren saldoa zuen (ikus A.15).

A.10 ZORDUNAK

Hona hemen balantzearen aktibo arruntean erregistraturiko zordunen eta kobratzeko beste kontu batzuen saldoen xehakapena, 2018ko ekitaldi itxieran:

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Aurrekontuko zordunak.....	2.733
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak	(830)
AURREKONTU ZORDUN GARBIAK	1.903
Zordun ez-aurrekontukoak, jasandako BEZ kontzeptuan (*).....	103
ZORDUNAK ETA INBER. FINANTZ. EPE LABURR. GUZTIRA	2.006

(*) Gehien bat lursail baten salmentagatiko BEZari dagokio, 102.098 euroren zenbatekoan (ikus A.12).

Aurrekontuko zordunak

Hona hemen 2018ko abenduaren 31n kobratzeko dauden Udalaren aurrekontuko eskubideen osaera eta antzinatasunaren xehakapena:

Euroak milakotan					
KAPITULUA	2015 eta lehen.	2016	2017	2018	GUZTIRA
Zerga zuzenak	511	112	133	180	936
Zeharkako zergak	57	-	-	32	89
Tasak eta bestelako sarrerak	108	40	55	576	779
Transferentzia arruntak	-	-	41	283	324
Ondare-sarrerak	1	-	-	-	1
Inbertsio errealen besterentzea	-	-	-	486	486
Kapital transferentziak	-	101	-	7	108
Aktibo finantzarioak	-	-	2	8	10
AURREKONTUKO ZORDUNAK GUZTIRA	677	253	231	1.572	2.733
Zalantza kobragarritasuneko saldoak					(830)
AURREKONTUKO ZORDUN GARBIAK GUZTIRA					1.903

Udalak nekez kobragarritzat edo ezinezkotzat jotzen ditu kontuetan sortu zirenetik 24 hilabetetik gorako antzinatasuna duten bat, hiru eta bost kapituluetan behar bezala aitortutako eskubideak. BLHko aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 F Aren 48.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, balioespen horretan jaso behar lirateke adierazitako antzinatasuna gaitzen duten eskubide aitortu guztiak, zazpigarren kapituluak barne (ikus II.2).

A.11 HARTZEKODUNAK

Hona hemen 2018ko abenduaren 31ko pasiboen xehetasunak:

Euroak milakotan			
KONZEPtua	PASIB. ARRUNTA	PASIB. EZ ARRUNTA	GUZTIRA 18/12/31
HARTZEKODUN EZ AURREKONTUKOAK	602	-	602
Jasotako fidantzak eta gordailuak	150	-	150
PFEZ kontzeptuan Ogasun Publiko hartzekoduna	261	-	261
BEZ kontzeptuan ogasun publikoa hartzekoduna	102	-	102
Gizarte Segurantza hartzekoduna	23	-	23
Bestelako hartzekodun ez aurrekontukoak	66	-	66
AURREKONTUKO HARTZEKODUNAK	2.095	-	2.095
APLIKATZEKO DAUDEN KONTU-SAILAK (*)	82	-	82
BANKUKO ZORPETZEA (ikus A.9)	13	863	876
AURREK. EGOZTEKO DAUDEN ERAGIK. HARTZEKODUNAK	3	-	3
PASIBOA GUZTIRA	2.795	863	3.658

(*) Nagusiki sarrera modura aitortzeko dauden jasotako dirulaguntzak.

A.12 HIRIGINTZAKO JARDUERAK ETA PLANGINTZA

Udalbatzak 2015eko otsailaren 25ean behin betiko onartu zuen Ermuko HAPOa, “Betiondo”ko eremuari buruzko zehaztapenak izan ezik. Erabaki hori eta horren bidez onartutako hirigintzako araudiaren testu osoa BAOn argitaratu zen 2015eko martxoaren 24an eta maiatzaren 22an, hurrenez hurren. Gerora, HAPOaren aldaketa zehatz bat onartu da, Uretako eremuetan, eta hainbat garapen-baliabide.

Betiondoko SSU.02 Sektoreko EUko 42 zenbakiko lursailaren % 41,8ko kuota zatiezina besterentzea

2017ko ekitaldian Betiondoko SSU.02 Sektoreko EUko 42 zenbakiko lursailaren % 41,8ko kuota zatiezinaren jabeak Ermuko Udalarari eskatu zion udalaren jabetzako kuotaren kostu bidezko eskualdaketa egiteko (% 41,8), jabetzaren % 100 finkatu eta etxebizitzaren eraikin baten eraikuntza sustatzearren. Salerosketa prezioa 486.179 euroan ezarri zen, horretarako eskatutako tasazio-txosten bitartez, eta horri beste 102.098 euro gehitu behar zitzaizkion BEZ kontzeptuan (ikus A.10). Lursailaren udal kuota balantzean prezio handiagoarekin baloratua zegoenez gero, eragiketarako inpaktu negatiboa izan zuen ekonomia eta ondareko emaitzaren kontuan.

PROIEKTUA	Euroak milakotan ZENBATEKOA
Lursailaren balorazioa	1.163
Salerosketaren prezioa (balorazioaren % 41,8)	486
Lursailaren kontularitzako balioa (ikus A.8)	563
Lurraren Ondare Publikotik eratorritako galerak	77

Ekitaldi itxieran, nahiz Alkatetza-dekretua ebatzi zen besterentzea onartuz, gauzatu gabe zegoen artean eta honenbestez, ez zegokion horrek eragindako sarrerak erregistratzea (ikus II.2).

A.13 ERMUKO IMD ERAKUNDE AUTONOMOA

Ermuko IMDren hasierako estatutuak 1997ko urtarrilean onartu zituzten (apirilaren 14ko BAO) eta gerora, hainbat aldaketa egin zaizkio. Horien arabera, erakundearen helburua da kirola sustatzea, kultura fisikoa garatzea eta kirola egitea sustatzea, bai eta tokiko kirol sistema garatu eta hobetzea ez ezik, baita kirol instalazioak kudeatzea ere.

Diru-sarrerak

Erakundea finantzatzen da Udaletik eta beste administrazio batzuetatik jasotzen dituen transferentzia eta dirulaguntza bidez; baita, erabiltzaileek ordaindutako tasa bidez ere. Hain zuzen ere, 2018an kontabilizatutako diru-sarrerak honako xehakapen hau dute:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Tasak eta bestelako sarrerak	786
Zerbitzuak eman eta kirol jarduerak egiteagatiko tasak	779
Beste batzuk	7
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	941
Udal entitatearen administrazioetik (ikus A.7)	940
BFatik.....	1
SARRERAK GUZTIRA	1.727

Langileria

Hona hemen kapitulu honen xehapena 2018ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari, LZn jasotako lanpostu kopuruari eta 2018ko abenduaren 31ko plantillari dagokionez:

Euroak milakotan				
KONTZEPTUA	OBLIGAZ.		LANPOSTU KOP.	
	AITORT. 2018	AITORT. 2017	LZ	PLANTILLA
Goi kargudunen ordainsariak.....	7	5	E/E	-
Funtzionarioen ordainsariak.....	83	82	1	1
Lan kontratu finkoko langileen ordainsariak.....	168	161	7	(*) 6
Aldi baterako lan kontratuko lang. ordains.	39	44	-	1
Gizarte Segurantza	83	80		
Beste gizarte-gastu batzuk.....	3	3		
LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA	383	375	8	8

(*) 2 mugagabe ez finko barne hartzen ditu.

2018ko ekitaldi itxieran lanpostu huts bat zegoen LZn (eraikinen mantentze-lanetako burua), zeina 2015ean kontrataturiko aldi baterako lan kontratuko langile batek betetzen baitzuen (ikus III.2).



A.14 "UDAL EUSKALTEGI PUBLIKOA FUNDAZIOA" ERAKUNDE AUTONOMOA

Ermuko Udal Euskaltegi Publikoa fundazio publikoa 1981ean eratu zen, zerbitzuko fundazio publiko izaera juridikoarekin; gerora, baina, ez zen estatutuetan aldaketa izapidetu, erakunde autonomo modura kalifikatzeko. Erakunde honen helburua da helduen alfabetatze eta euskalduntzea, HABEren erregistro pean, Udalak duen eskumenaren esparruan.

Diru-sarrerak

Erakundea finantzatzen da Udaletik eta beste administrazio batzuetatik jasotzen dituen transferentzia eta diru-laguntza bidez; baita, ikasleek ordaindutako tasa bidez ere. Hain zuzen ere, 2018an kontabilizatutako diru-sarrerak honako xehakapen hau dute:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	11
Ikasleen matrikulak	11
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	185
Udal entitatearen administrazioetik (ikus A.7)	96
HABEtik	89
SARRERAK GUZTIRA	196

Langileria

Hona hemen kapitulu honen xehapena 2018ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari, LZn jasotako lanpostu kopuruari eta 2018ko abenduaren 31ko plantillari dagokionez:

Euroak milakotan				
KONTZEPTUA	OBLIGAZ.		LANPOSTU KOP.	
	AITORT. 2018	AITORT. 2017	LZ	PLANTILLA
Lan kontratu finkoko langileen ordainsariak.....	107	105	4	3
Aldi baterako lan kontratuko lang. ordains.	3	-	-	-
Gizarte Segurantza	30	33		
Beste gizarte-gastu batzuk.....	2	2		
LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA	142	140	4	3

(*) Aldi baterako ezigaitasun-bajak betetzeko ordezkapenak.

A.15 PROMOSA UDAL SOZIETATEA

Promoción Económica de Ermua edo PROMOSA Sozietatea 2000ko abenduan eratu zen Ermuko udalerraren garapen ekonomikoan eragina duten ondasun eta aktibo mota oro erosi, eraldatu eta eskualdatzeko helburuarekin, industria jardueretarako edo hirugarren sektorerako lurzoruen sustapen eta eskaintzaren bidez. 2013an sozietate xurgatzaile modura Promoción Inmobiliaria Municipal de Ermua, SA sozietate xurgatuarekin fusionatu zen, desegin izanaren ondorioz desagertu zelarik eta ondarea oso-osorik PROMOSari eskualdatu zitzaiola. Sozietatearen egungo estatutuak 2015eko maiatzean aldatu zituzten oso-osorik eta sozietatearen hasierako helburuari honako hauek gehitu zizkieten: etxebizitza, garaje eta merkataritzako lokalen sustapena, eraikuntza eta salmenta, eta gainerako hirigintzako jarduerak; baita, telekomunikazio sare, instalazio eta ekipoekin eta komunikazio-zerbitzuak ematearekin lotutako jarduera mota oro.

Izakinak

Izakinaren idazpuruaren xehakapena eta 2018ko ekitaldian erregistraturiko aldaketak honako hauei dagozkie:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	SALDOA 18/01/01	ALTAK/ BAJAK	SALDOA 18/12/31
ABIAN DAUDEN SUSTAPENAK	3.052	39	3.091
UE Lomy Power.....	2.299	(*) 39	2.338
Abian dauden gainerako sustapenak.....	753	-	753
ERAIKITAKO ERAIKINETAN IZAKINAK	11.721	(1.022)	10.699
Izarra Centre.....	10.893	(1.022)	9.871
Eraikitako eraikinetan gainerako izakinak.....	828	-	828
HORNITZAILEEI AURRERAKINAK	138	-	138
IZAKINAK GUZTIRA	14.911	(983)	13.928

(*) Izakinaren balioari gehitutako gastuak.

Bestalde, Izarra Centre eraikinean izakinaren idazpuruko bajak honako hauei dagozkie:

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Udalari saldutako lokala (ikus A.8).....	763
Ekitaldian alokatutako lokalak (*).....	259
BAJAK GUZTIRA	1.022

(*) Ibilgetuko inbertsioen idazpuruan, balantzeko aktibo ez arruntean birsailkatu dira.



Udalari lokala 2018ko uztailaren 23an saldu zitzaion 770.083 euroren zenbatekoan, 161.717 euroan gehitu zena BEZa erantsita (ikus A.8). Prezioa kontularitzako balioa baino handiagoa zenez gero, eragiketak 6.638 euroren mozkinak ekarri zuen.

Zorpetzea

Hona hemen zorpetzeak ekitaldian izan duen bilakaera:

			Euroak milakotan		
ENTITATEA	% INTERESA	EPEMUGA	SALDOA 18/12/31	EPEMUGA EPE MOTZ.	EPEMUGA EPE LUZ.
Kutxabank SA.....(*)	Euriborra 1 urte + 0,5	2034	4.578	257	4.321
BANKUETAKO ZORRA GUZTIRA			4.578	257	4.321
Industria, turismo eta merkat. ministerioa	% 0	2022	337	120	217
Industria, turismo eta merkat. ministerioa	% 0	2023	558	151	407
Finantzen Euskal Institutua.....	% 1,23	2025	2.633	-	2.633
Finantzen Euskal Institutua.....	% 1,23	2026	885	-	885
Finantzen Euskal Institutua.....	% 1,23	2028	669	-	669
Beste zor batzuk			5.082	271	4.811
ZORPETZEA, GUZTIRA			9.660	528	9.132
Kreditu erakundeekiko epe motzeko maileguak				2	-
Jasotako bermeak				20	2
BALANTZEKO SALDOAK GUZTIRA				550	9.134

(*) Udalaren abala duena (ikus A.9).

Kapital Soziala

Bankuko zorpetzeaz gain, sozietatearen finantza beharrek eragin dute, sortze-sortzetik, zenbait kapital-zabalkuntza onartu izana segidan adierazitako zenbatekoekin:

		Euroak milakotan	
KONTZEPTUA		EKIT.	ZENBAT.
Hasierako kapital soziala		2000	902
2007/11/28an eta 2007/12/19an onartutako kapital-handitzeak		2007	4.000
2012/07/18an onartutako kapital-handitzeak.....		2012	2.980
2013/03/09an onartutako kapital-handitzeak.....		2013	2.500
2018/07/23an onartutako kapital-handitzea (ikus A.8).....		2018	1.000
KAPITAL SOZIALA			11.382



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Bestelako ustiaketa-sarrerak

Hona hemen 2018ko ekitaldiko xehakapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ZENBATEKOA	
Fibra optikako azpiegitura alokatzeagatiko sarrerak		328
Izarra Centre eraikinean lokalak eta garajeak alokatzeagatiko sarrerak		207
Beste batzuk		167
BESTELAKO USTIAPEN SARRERAK GUZTIRA		702

Langileria

Hona hemen 2017 eta 2018ko ekitaldietan erregistraturiko langile-gastuen eta plantillaren xehakapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	GASTUAK 2018	GASTUAK 2017	PLANTILLA	
			18/12/31	17/12/31
Langileen ordainsariak	106	161	3	3
Gizarte Segurantza	33	51		
LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA	139	212	3	3

Langile gastuak murriztu egin dira batez besteko plantilla 2017an bost langile izatetik 2018an hiru izatera aldatu delako. 2018ko ekitaldian ez zen langileen ez altarik ez bajarik izan.



A.16 KONTRATAZIOA

A.16.1 2018KO EKITALDIAN INДАРREAN ZEUDEN KONTRATUEN ANALISIA

Kontratu mota bakoitzari ezargarriak zaizkion legezko prozedurak berrikusi ditugu zortzi kontraturen lagin baten bitartez: bat Udalak esleitutakoa, bi Ermuko IMD erakunde autonomoak eta bat PROMOSA udal sozietateak.

AZTERTUTAKO ESPEDIENTEAK		Euroak milakotan				
KONTRATUA	DATA	ESLEIPENA		GASTUA 2018	AKATSAK	
		PROZED. ZENBAT. (*)			A	B
OBRA						
1. Kirolegia sektorizatzeari dagokionez, ebakuazioa eta konpentsazio-neurriak hobetzea	abe-17	PGPN	370	370	A3	B1
ZERBITZUAK						
2. Udal aretoen era eraikinen garbiketa	Eka-18	Irekia	1.493	82	A1,3	
3. OLHko programako irakaskuntza zerbitzua 2017-2018	uzt-17	Irekia	769	384	A1,3,4,6	
HORNIDURAK						
4. Betiondon futbol zelaiko belarra (I. lotea) eta atletismoko pistaren zoladura ordezte (II. Lotea)	eka-17	Irekia	256	82	A1	B1
5. Haur parkeak berritzea (I. lotea) eta Gizarte Etxea hornitzea (II. lotea)	aza-17	Irekia	159	159	A1,2	
UDALA GUZTIRA			3.047	1.077		
ZERBITZUA						
6. Kirol instalazioen garbiketa.....	mai-18	Irekia	468	112	A1,3,5,6	
HORNIDURA						
7. Eraikinen zaintza eta mantentze-lana, berme osoz; instalazio termiko eta elektrikoaren kudeaketa energetikoa eta berrikuntza eta hobekuntza (**).....	Uzt-15	Irekia	3.331	333	A4	
ERMUKO IMD GUZTIRA			3.799	445		
OBRA						
8. FIBERMUA banda ultra zabaleko sareko higiezin-unitateentzako hartune-obrak eta operazio- eta mantentze-zerbitzuak (**).....	Api-18	PGPN	229	167		
PROMOSA GUZTIRA			229	167		

(*) Esleipen-zenbatekoek BEZa barne hartzen dute, 8. Kontratuan izan ezik, zeinetan kengarria baita.

(**) Kontratu mistoak Taulan sailkatu dira ikuspegi ekonomikotik prestazio garrantzitsuenaren arabera, horrek bereizten baititu aplikazio-arauak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

		Euroak milakotan	
AKATSAK	ESPED. ZK.	ZENBATEKOA ESLEIPENA	
A IZAPIDETZEA ETA ESLEIPENA			
1. Ez dago pleguak onartu aurretiko Artekartzako txostenik (2).....	5	3.145	
2. Eskaintza ekonomikoa irizpidearen balorazioan baliatutako formula desegokia da (2)	1	159	
3. Pleguetan edo esleipen ebazpenetan zenbait informazio ez barne hartzea (2)	4	3.100	
4. Kontratazio mahaiaren eraketa ez baliozkoa (2)	2	4.100	
5. Esleipendunaren eskaintza ez da pleguetako eskakizunetara egokitzen (1).....	1	468	
6. Prezioa edo bermea zehaztean urteko bakarra aintzatestea (2)	2	1.237	
B EGIKARITZA			
1. Kontratua betetzean atzerapenak (2)	2	626	
(1) Ikus II.1.			
(2) Ikus III.4.			

A.16.2 ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOKO ESPEDIENTERIK GABEKO GASTUAK

Kontratu txikiaren prozedura bidez gauzaturako kontratazioak aztertzean ikusi dugu zenbait prestazio publikotasunari lotutako prozedura bidez izapidetu behar ziratekeela, honako xehakapenaren arabera:

		Euroak milakotan
DESKRIBAPENA	Zenbatekoa	
Zine clubaren programazioa	87	
Telefoniako zerbitzuak	59	
Gas hornidura	60	
UDALA GUZTIRA	206	
Izarra Centreko ate-zaintza eta sarbide-kontrola.....	43	
Elektrizitate hornidura	54	
PROMOSA GUZTIRA	97	

Zegozkien kontratuek gehienezko iraupen-aldia gainditu izanaren ondorioz, lizitazio berrien esleipena ebatzi gabe kontratu-estaldurarik gabe egindako gastuak ere azaleratu dira:

		Euroak milakotan
DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	
Udal aretoen eta eraikinen garbiketa (*)	94	
Etterako laguntza zerbitzua	56	
GUZTIRA	150	
(*) A.16.1ean aztertutako kontratu berria.		





ERMUKO UDALAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK HKEE-K EGINDAKO FISKALIZAZIOAREN EMAITZEEI

2020ko uztailaren 28an, Ermuko Udalaren erregistro orokorrean sartu zen Kontu Auzitegiak Ermuko Udalari eta beraren 2018ko erakunde-sareko gainerako egiturei egindako fiskalizazio-txostena.

Txosten hori aztertu ondoren, eta Kontu Auzitegiak emandako epearen barruan, Udal honek honako alegazio hauek aurkeztu ditu, dagozkion justifikazio-agiriekin batera:

1.- Pentsioen sistema osagarriko ordainsari-kontzeptua.

2020an, egoera erregularizatuta dago, eta ordainsari-kontzeptuak indarrean dagoen araudira egokituta daude.

2.- Ermuko Udal Kirol Erakundearen (UKE) kontratua. Esleipendunaren eskaintza ez zetorren bat baldintza-agiriekin.

2018ko otsailaren 13an, hasiera eman zitzaion Ermuko Udal Kirol Erakundearen instalazioak garbitzeko zerbitzua prozedura irekiko lehiaketa bidez kontratatzeko espedienteari.

Apirilean, 1, 2 eta 3 zenbakietako gutun-azalak ireki ziren, eta prozeduran parte hartu zuen enpresa bakarrari, Zaintzen SAri, legez ezarritako agiriak eskatu zitzaizkion, kontratua esleitu eta sinatu ahal izateko.

2018ko maiatzaren 4an, idazki bat bidali zitzaion Zaintzen SA enpresari, eta 10 egun balioduneko epea eman zitzaion kontratua formalizatzen eskatutako agiriak aurkez zitzan.

Xx xx andreak, Zaintzen SA enpresaren izenean, idazki bat aurkeztu zuen Ermuko Udaleko dokumentuen sarrera-erregistroan, 2018ko maiatzaren 22an. Bertan, aurkeztutako eskaintzan enpresak akats bat egin zuela adierazi zuen eta enpresak lizitazioan aurkeztutako proposamena baztertzeko eskatu zion kontratazio-mahaiari.

2018ko maiatzaren 23an, Ermuko Udaleko Udal Kirol Erakundeak zuzendari kudeatzaileak Zaintzen SAk aurkeztutako idazkiari erantzun zion, eta honako hau adierazi zuen: baldintza-agiriaren 3. puntuak («Baliabide materialak: ezaugarriak, hornidura eta birjarpena») ez du ezartzen, inolaz ere, «A) Makinak eta tresnak» atalean jasotako makina guztiak modu iraunkorrean esleitu behar direnik Ermuko UKEren instalazioetan. Izan ere, kontratazio-mahaiak erabaki zuen zerrenda hori erreferentziatzen hartzea; beraz, zerrenda hori oinarri hartuta, kontratista bakoitzak bere eskaintzan zehazten du zein elementu jotzen dituen ezinbestekotzat, ahalik eta kalitate oneneko zerbitzua emateko, eskura dituen giza baliabideak aintzat hartuta. Irizpide hori aplikatuta onartu zen Zaintzen SAren proposamena.

Erantzun hori ikusita, Zaintzen SA enpresak bere jarrera berretsi zuen erregistro orokorrean 2018ko maiatzaren 28an aurkeztutako idazkiaren bidez. Ermuko Udal Kirol Erakundearen Administrazio Kontseiluaren erabaki baten bidez ebatzi zen idazki hori, eta erantzun egin zitzaion. Hain zuzen, enpresa esleipendunak lehen instantzian jasotako erantzunari eutsi zion, honela: «*Lehen azaldutakoa ikusita, oraindik ezin da hauteman*



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Zaintzen SA enpresak adierazitako akatsa, eta, beraz, enpresaren eskaintzak ez du urratzen lizitazioaren baldintza teknikoen agiriaren 3. puntuan («Baliabide materialak: ezaugarriak, hornidura eta birjarpena») zehaztutakoa. Hain zuzen, baldintza-agiriak ez du ezartzen, inolaz ere, «A) Makinak eta tresnak» atalean jasotako makina guztiak modu iraunkorrean esleitu behar direnik Ermuko UKEren instalazioetan. Izan ere, kontratazio-mahaiak erabaki zuen zerrenda hori erreferentziatzat hartzea; beraz, zerrenda hori oinarri hartuta, kontratista bakoitzak bere eskaintzan zehazten du zein elementu jotzen dituen ezinbestekotzat, ahalik eta kalitaterik oneneko zerbitzua emateko, eskura dituen giza baliabideen arabera. Maiatzaren 28an, Zaintzen SAK beste idazki bat aurkeztu zuen, maiatzaren 22ko idazkian azaldutakoa berresten zuena, eta bere proposamena baztertzeko eskatu zuen».

Kontratazio-organoak ekainaren 25ean jasotako argibideak onartu ondoren, kontratua esleitu eta 2018ko uztailaren 6an formalizatu zen.

Espedienteko dokumentazioa aztertuta, udal honek uste du kontratazioak bete zituela indarreko legeriak eskatzen zituen baldintza guztiak, ez baitzegoen enpresa lizitatzailerak bakarrik garbiketa-zerbitzua hartzea galarazten zion eragozpen tekniko edo legalik. Izan ere, baldintza-agiriekin ez zuten ezartzen ataleko zerrendako makina guztiak modu iraunkorrean esleitu behar zirenik Ermuko UKEren instalazioetan.

3.- Ezarritako epea gainditzen duten kontratuak.

3.1. Futbol-zelaiko belarra ordezteak.

Betiondoko futbol-zelaian belar artifiziala ordezteko obra egiteko kontratua 2017ko uztailaren 20an sinatu zen. Lanak egiteko epea 45 egun naturalekoa zen, eta, beraz, 2017ko irailaren 4an amaitu zen.

Hala eta guztiz ere, obrak 2017ko urriaren 13an amaitu ziren, 43 eguneko atzerapenarekin, alegia.

Atzerapen hori neurri batean justifikatuta dago, euria egin zuen egunetan ezin izan baitzen lanik egin: uztailaren 20tik aurrera, abuztuan eta irailean, 31 egun izan ziren. Euri-egun horiez gain, zelaia lehortzeko behar diren egunak ere hartu behar dira kontuan: gutxienez, egun bat euri-aldi bakoitzeko, hau da, beste zortzi egun. Beraz, 39 egunetan lanak ezinbestez atzeratu behar izan zirenez, benetako atzerapena lau egunekoa besterik ez zen izan.

Futbol-zelaiko obrak amaitu ondoren, akats hauek antzeman ziren:

- Futbol-zelaietako zenbait lerrotan trazadura okerrak.
- Euri-urak biltzeko kanaletan zikinkeria.
- Desdoikuntzak ur-kanoietan.
- 11ko futboleko ateen altuera desegokia.
- Zenbait kutxatila-estalkitan belar-azalik ez.



- Kautxuzko eta hareazko betegarria behar bezala banatu gabe.
- Belarra kanaletaren kontra profilatuta gabe, tribunaren kontrako zuzenean.
- 7ko futboleko zelaietako lau ateak zentratu gabe.

Antzemandako akats horietatik, honako hauek daude konponduta gaur egun:

- 11ko futboleko ateak behar bezala jarri dira.
- Falta ziren kutxatila-estalkiak belarrez estali dira.
- Hondarra eta kautxua behar bezala banatu dira.
- Belarra profilatuta egin da, tribunaren kontrako zuzenean.
- Ur-kanoiak doitu egin dira.
- Kanaletak garbitu egin dira.

Honako hauek falta dira:

- Lerroen trazadura okerra zuzentzea, bi aldeek onartutako eta eranskin gisa gehitutako irtenbidearen arabera.
- 7ko futboleko zelaietako lau ateak zentratzea.

2018ko urtarrilaren 12an, obra-harreraren akta egin zen, erreserbekin baina ezinbestean, futbol-zelaiak 2017ko uda amaieratik erabiltzen ari baitziren.

Futbol-zelai berria erabiltzen hasi zirenetik, bilerak egin genituen enpresa instalatzailearekin, Ozionarekin, eta lerroen markaketan antzemandako arazo nagusiaren irtenbiderik egokiena negoziatzen aritu ginen. Horretarako, hainbat mezu elektronikoko bidali genizkion elkarri, eta, gutxienez, bost proposamen aztertu ziren; besteak beste, lerroak zuzentzea eta banaka ordeztzea proposatu zuen enpresak, baina ez zen onartu, eta zelaiaren erdiko eremu osoa alborik albo altxatzea ere proposatu zen, baina enpresak adierazi zuen ezin zuela hori egin, gehiegizkoa zela iritzita.

Enpresaren eta obra-zuzendaritzaren jarrerak oso urrun zeudenez, aparejadorearen bidez iritzia eskatu zitzaion Bilboko belar artifizialeko futbol-zelai gehienak kudeatzen dituen adituari (Bilbao Kirolakeko arkitekto teknikoari). Erdiko zirkulua barne hartzen duen gune karratu bateko belarra ordeztzeko eta ondoren berriz trazatzeko aukera azaldu zitzaion.

Adituaren iritziz, proposatutako aukera oso ona zen, eta marka berriak zaharretatik oso hurbil ez egoteko baldintza betetzen zuen.

Proposamen hori enpresari helarazi zitzaion, eta kontraproposamen batekin erantzun zuen: zirkuluaren erdialdeko belarra soilik ordeztzea, hain zuzen.

Obra-zuzendaritzak ez zuen konponbide hori onartu, eta nabarmendu zuen aurreko proposamenera jo behar zela berriro. Proposamen horrek, gainera, bazuen beste abantaila bat: biribilkien zati osoak aldatzean, juntura berriek lehenengo junturekin bat egingo zuten.



Irtenbide hori berriro proposatu zitzaion enpresari, eta ohartarazi zitzaion arazoa adiskidetasunez konpontzeko azken aukera izango zela, proposamena gauzatzeko behar zuen lan-denbora zehazteko eskatzeaz gain.

2017ko azaroan, enpresak konponbidea onartu zuen, eta erantzun zuen eguraldi oneko zortzi egun beharko zituela eta guk esandako egunean has zitekeela.

Proposamen haren bidez, lerroen markaketan antzemandako arazoak modu onargarrian konpondu zirela uste dugu.

Obraren harrera erreserbekin egin zenetik, futbol-zelaia erabiltzen jarraitu zuten, baina modu ezegonkorrean, entrenamenduetarako eta partida ez-ofizialetarako soilik. Hori kontuan hartuta, eta gorabehera esanguratsurik sortu ez zenez, enpresari ordainketa partzial bat egitea erabaki zen 2018ko ekainaren 26an, eta zenbateko handi bat atxikitzea, artean egin beharreko konponketarako dirua egongo zela ziurtatzeko. Atxikitako zenbatekoa 46.502,72 eurokoa izan zen.

Denbora horretan, enpresa esleipendunarekin hitz egin genuen, konponketaren baldintzak zehazteko. Markaketa konpontzeko irtenbidea 2017ko azarotik dago ezarrita. Zenbait data proposatu ziren, baina, batzuetan eguraldiagatik eta beste batzuetan enpresak erantzun ez zuelako, arazoa konpondu gabe geratu zen. Geroago, 2018ko irailaren 24an, Norcesped enpresak konponketa baten deskribapena bidali eta beste irtenbide bat proposatu zigun, egokia eta Ozionarekin hitzartutakoarekin bat zetorrena, markaketa berritik metro batetik gorako distantzia uzteari zegokionez. Norcespedeko teknikariek 2018ko uztailean futbol-zelaia egindako bisitaren ondoren bidali ziguten irtenbide hori, guk markaketaren arazoa azaldu ondoren.

Konponketa gauzatzeko, bi baldintza bete behar zirela adierazi zuen enpresak:

- 8 egunez futbol-zelaia erabiltzeari uztea.
- 8 egunetan eguraldi ona egitea.

Proposamen berri hori Oziona enpresari bidali zitzaion, egin beharreko konponketa erraztuko zuelakoan, baina Ozionak uko egin zion, eta konponketa 2017ko azaroan hitzartutako moduan gauzatu zuela berretsi zuen. Onartu egin genuen.

2018ko irailetik aurrera, Oziona enpresa konponketa egiteko prest agertu zen. Ezinezkoa izan zen, ordea, futbol-zelaia erabiltzen ari zirelako eta ezin zelako bertako jarduera geldiarazi, nahasmendu larriak sortuko bailirateke.

2018ko urrian, konponketa zer egunetan egin zitekeen adierazteko eskatu genion Udal Kirol Erakundeari.

UKEren erantzuna jaso genuen. Bertan adierazi zigutenez, ezinezkoa zen futbol-zelaiko jarduera etetea; abenduaren amaierara arte itxaron behar zen, hau da, Gabonetako etenaldira arte. Egun horietan eguraldi txarra egiteko aukerak hain ugariak direnez, konponketa 2019ko uztailean arte atzeratzea zen onena.

Baina data hori, hasiera batean, ez zen gomendagarria, bi arrazoirengatik:

- Konponketa luzaroan atzeratzea eragiten zuelako.



- Zalantzak zeudelako aurrekontu-esleipena 2019ra luzatu ote zitekeen. Zalantza horiek, azkenean, argitu egin ziren; hain zuzen, aurrekontu-esleipena bertan behera geratu zen.

Ikusten denez, egoerak ez zuen konponbide errazik.

Gaia UKEko zuzendariari azaldu eta udaleko kontratazio-sailari kontsulta egin ostean, irtenbide bat aurkitzen saiatu ginen:

- Konponketa 2018ko Gabonetan egiten saiatzea.

Hori ezinezkoa balitz:

- Oziona enpresari abal osagarri bat eskatzea, berehala aurkeztekoa, soberan berma zezan, hasieran gordailututakoarekin batera, egin gabe zegoen konponketarako aurreikusitako zenbatekoa.
- Konponketa 2019ko uztailean arte atzeratzea, UKEk iradokitzen duen bezala.
- Oziona enpresari ordaintzea, 2018. urtea amaitu baino lehen, ziurtatzeke zegoen zenbatekoa, betiere, abal osagarria gordailutuz gero.

Konfiantzazko enpresa batek egin gabe zegoen konponketaren kostua egiaztatu zuen, eta jakinarazi zigun konponketak 12.000 euro inguruko balioa izango zuela, eskulana eta materiala barne (materiala udal-brigadaren biltegian gordetako biribilki bat zen); beraz, Oziona enpresak beste 6.116 euroko abala gordailutu behar zuen, lehenagoko 5.834 eurokoaz gain.

Konponbide horren bidez, egin beharreko konponketa bermatu eta interes publikoa babesten zen. UKEk adierazitako unerik egokienera atzeratu zen konponketa; hau da, 2019ko uztailean. Halaber, 2018an egindako obraren zenbateko osoa ordaindu zitzaion Ozionari. Beraz, aurrekontuan sor zitekeen arazoa saihestu egin zen. Ordainketa egin zitekeen; izan ere, urtebete baino gehiago zeramaten futbol-zelaia erabiltzen, nahiz eta modu ezegonkorrean izan, lehen esan dugun bezala, eta etorkizunean konponketa egitea bermatuta zegoen.

Aukera hori proposatu zitzaion Ozionari, eta enpresak ez zuen onartu; hain zuzen, argudiatu zuen konponketaren kostua jarritako abalaren zenbatekoa baino txikiagoa zela, eta, beraz, ez zela beharrezkoa beste abal bat jartzea.

Ozionaren ezezkoaren aurrean, eta kontuan hartuta obra-zuzendaritzaren iritziaren arabera (Oziona adierazitakoaren aurka) konponketaren balioak jarritako abalaren zenbatekoa gaindituko lukeela, proposamena bertan behera geratu eta konponketa 2019ko uztailean atzeratu zen. Egoera horretan geunden orduan.

Dena den, Oziona enpresa 2019ko urtarrilean azaldu zen futbol-zelaian, hiru langilerekin, eta zelaia hiru egunez erabiltzeari uzteko eskatu zuen, konponketa egiteko. Aurrekoetan bezala, zelaia erabilera etetea ezinezkoa zela erantzun zitzaion, eta konponketa uztailean arte atzeratzea erabaki genuela.

Gainera, Udalaren iritziz, enpresako langileek ez zuten egin beharreko lanerako nahikoa baliabiderik.



Konponketa 2018an egin ez zenez, horretarako eta obra amaitzeko zegoen kreditua galdu egin zen; hortaz, arazoa konpondu nahi bazen, konponketa egin eta obra amaitu nahi bazen, kreditua bideratu behar zen berriz ere, falta zen zenbatekoan (46.502,72 €), obra uztailean amaitu ahal izateko, itunduta bezala.

Konponketa 2019ko udan egin zen, eta futbol-zelaiak erabateko errendimendua du gaur egun.

3.2.- Udalaren instalazioak eta eraikinak garbitzeko zerbitzua esleitzeko kontratua.

2017ko apirilaren 26an, kontratazio-arloak hasiera eman zien udal-instalazioen garbiketa-zerbitzua kontratatzeko beharrezko izapideei. Izapidetze horrek geldialdi bat izan zuen kontratazio-prozesuan; izan ere, arlo sustatzaileak zenbait akats hauteman zituen baldintza teknikoan agirietan. Akats horiek behin betiko ebatzi ziren 2017ko urriaren 6an egindako txostenean.

Egia da arazo horiek lehenago detektatu behar zirela, aurreko kontratua amaitu baino lehen kontratatu ahal izateko aipatutako zerbitzuak. Baina egia da, era berean, atzerapena handitu egin zela, administraziotik kanpoko zenbait egoeraren ondorioz eta indarrean dagoen legeriak lizitatzailen eskura jartzen duen berme-prozesuaren eraginez. Hona hemen prozesu hori:

- 2018ko martxoaren 6ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez, kontratuaren behin betiko esleipena egin zen Lantegi Batuak enpresaren alde.
- 2018ko martxoaren 12an, Integra enpresak (prozesuan lizitatu zuen) kontratazio-arloko errekurtsio berezia jarri zuen.
- 2018ko maiatzaren 3an, KEAOk ebazpena eman zuen: Integrak aurkeztutako errekurtsioa onetsi egin zuen.
- Ekainaren 12an, KEAOn jakinarazpena jaso ondoren, Udalak eraginik gabe utzi zuen Lantegi Batuak enpresaren aldeko esleipena, KEAOk emandako ebazpenean ezarritakoaren arabera, eta Integra enpresari esleitu zion kontratua.
- Ekainaren 26an, Lantegi Batuak kontratazio-arloko errekurtsio berezia aurkeztu zuen, eta KEAOk ezetsi egin zuen, 2018ko irailaren 25ean.
- 2018ko azaroaren 2an, kontratua formalizatu zen.

Gertakarien kronologia ikusita, eta kontratazio-espeditentia izapidetzen hastean izandako atzerapena onartuta, egia da epeak gehiegi luzatu zirela bat-bateko egoerengatik eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak lizitatzailen esku jarritako kontratazio-prozeduraren ondorioz.

3.3.- Ebakuazioaren hobekuntza eta konpentsazio-neurriak.

UNEBIDE eraikuntza-enpresak, egin beharreko obren esleipendunak, zuinketa-akta sinatu zuen, eta 2018ko maiatzaren 25ean ekin zien hobekuntza-lanei. Lau hileko epea zuen lanak



burutzeko, zuinketa-akta sinatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, kontratazioa arautzen zuten agirien arabera.

2018ko abenduaren 20an, obraren harrera-akta sinatu zen.

Beraz, atzerapen handiarekin egin zituen obrak; alde batetik, lanek iraun bitartean sortutako ezustekoek (karga-hormak, aurreikusi gabeko instalazioak...) eta, beste batetik, hornitzaile nagusiarekin (COLT enpresa, kantxan suteen kea kontrolatzeko instalazioa jarri behar zuena) izandako arazoek eragin zuten atzerapena.

Atzerapena justifikatzeko, obra-zuzendaritza egiteko kontratatutako enpresaren txostenarekin batera, OBRA-AKTAK ere erantsi dira. Akta horietan, obran izandako gorabehera guztiak jasotzen dira, eta haien bidez egiazta daiteke Udal Kirol Erakundeak edo Ermuko Udalak ez zutela atzerapenean erantzukizunik izan.

4.- Kontu-hartzaitzaren txostenik eza, agiriak onartu aurretik.

2018. urtera arte, hau da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea indarrean sartu zen arte, kontu-hartzaitzak ez zuten agiriak onartzeko txostenik egin behar; espedienteak kudeatzeko programan idatzohar bat egiten zuten. Idatzohar horretan, izapidearen ALDEKO jarrera zuen ala ez adierazten zuten. Aldekoa izanez gero, espedienteak izapidetzen jarraitzen zuten; kontrakoa izanez gero, berriz, espedientea gelditu egiten zen, antzemandako akatsa zuzendu arte.

5.- Haur-parkeak berritzeko espedientean erabilitako formula.

Erreferentziako kontratuan erabilitako balioztapen-formula alderantzizko eskaintza ekonomikorik onenean oinarritzen da; alegia, eskaintza ekonomikorik merkeenaren eta balioztatu beharreko eskaintzaren arteko zatiduran.

Eskaintzarik merkeenak 50 puntu lortzen ditu, eta gainerakoek eskaintza horrekiko puntuazio proportzionala lortzen dute.

Formula horrek puntu gehiago ematen dizkio eskaintzarik merkeenari, eta gutxiago garestienari, eta proportzio egokiari eusten dio tarteko eskaintzei puntuak ematean. Hala ere, lizitatuzaileek lizitazio-prezioa baino txikiagoa eskaintzen badute, formulak ez du hori kontuan hartzen. Izan ere, gainerako eskaintzekin alderatuta balioztatzen du eskaintza bakoitza.

Beraz, ez gatoz bat organo horren irizpidearekin, uste baitugu kasu honetan legerian ezarritako aurreikuspenak betetzen zirela. Besteak beste, Kontratazio arloko Errekurtsioen Administrazio Auzitegi Zentralaren 1/2017 ebazpenak bermatzen du azken irizpide hori.

6.- Kontratazio publikoan klausula sozialak txertatzea, apirilaren 7ko 3/2016 Legearen babesean.

Auzitegi horrek egindako azterketaren ondoriozko espedienteak honako hauek dira:



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- 1. espedientea. Kiroldegiko ebakuazioa hobetzea eta konpentsazio-neurriak hartzea.
Ez zen klausularik ezarri.
- 2. espedientea. Udal-instalazioen garbiketa.
Proiektu teknikoa, 50 puntu gehienez: besteak beste, berdintasun-plana. 5 puntu.
- 3. espedientea. BFAko programako irakaskuntza-zerbitzua.
Proiektu teknikoa esleitzeko irizpideak: 49 puntu, gehienez. Besteak beste, aniztasunaren tratamendua (puntu 1) eta genero-berdintasunaren sustapena (puntu 1).

7.- Hitzarmen kolektibo aplikagarria: ez da bereziki aipatzen.

Txostenaren xede diren espedienteak aztertuta, administrazio honek egiaztatu du aipatutako kontratazioa arautzen duten baldintza-agirien 23. klausulak honako hau xedatzen duela: *«Esleipendunak, kontratu honen xede diren obretarako enplegatzen dituen langileei dagokienez, lan- eta gizarte-legerian indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, bai eta kontratua gauzatzen den bitartean indarrean jartzen direnak ere»*.

8.- 3. espedientearen (BFAko Programako Irakaskuntza Zerbitzua) kontratazio-mahaia eratzea.

Egiaztatu da kontratazio-mahaiaren aktan ez direla jaso ez idazkaria (edo, hala badagokio, aholkularitza juridikoko eginkizuna esleituta duen organoko titularra) ez kontu-hartzailea. Mahaiko idazkariak ezin izan du zehaztu zergatik: akta transkribatzean ahaztu egin delako edo nahitaezko bi kide horiek ez zutelako parte hartu.

9.- 3. espedientearen (BFAko programako irakaskuntza-zerbitzua) esleipena.

Egiaztatu da espedienteko datu ekonomiko guztiak (kontratuaren prezioa eta fidantza) urte bati dagozkiola, enpresa kontratistak egindako proposamen ekonomikoaren arabera, baina, egiaz, kontratuaren hasierako epea bi urtekoa izan zen.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BOTO PARTIKULARRA, HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIKO KIDE DEN XABIER TXOKARRO AMUNARRIZ JAUNAK ERMUKO UDALAREN 2018KO EKITALDIKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI JARRITAKOA

Boto partikular hau egiten dut errespetu osoz Ermuko Udalaren 2018ko ekitaldiko fiskalizazio txostenaren edukiarekiko desadostasuna adierazteko; txostena Herri-Kontuen Euskal Epaitegi honetako Osoko Bilkurako kideen gehiengoak onartu zuen 2020ko urriaren 29an egindako bilkuran eta desadostasuna, hain zuzen ere, Legea betetzeari buruzko Iritziaren lehenengo paragrafoa kentzetik dator; hona zer zioen hitzez hitz:

“Udalak zuzenean besterendu zion LUOko lursail zatiezin baten % 41,8 horren jabeari, 588.277 euroren zenbatekoan (BEZa barne); ordea, ezargarrria den araudiaren arabera, lehiaketa publiko edo truke bidez besterendu behar zatekeen (Lurrari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 116. artikulua) (ikus A.12).”

Gai honi buruzko informazioa aztertu ondoren, ene ustez, honako ondorio hau eskuratzen dugu:

- Ezin da aplikatu Administrazio Publikoen Ondareari buruzko abenduaren 3ko 33/2003 Legearen zuzeneko besterentze-araubidea, izan ere legegileak baztertu egin du toki administrazioari ondasunak besterentzeari buruzko manuak modu osagarrian aplikatzeko aukera, ez baititu zerrendatzen azken xedapenetatik bigarrenean gai hori arautzen duten 136tik 145era bitarteko artikulua, eta, beraz, ez baitie oinarrizko legeriaren izaera eman.
- Besterentzutako ondasuna Lurraren Udal Ondarearen atal da, hirigintzako birsailkatzeko eragiketa baten bidez eskuratu baitzen, eta honenbestez, lehentasunez aplikatu behar da uneoro indarrean dagoen hirigintzako legedia, ondarearen araubide juridiko arruntari men egin gabe.
- Lursaila ez zuen hirigintzako planeamenduak kalifikatu zuzkidura publikorako edo etxebizitzak eraikitzeo lursail modura, nolabaiteko babes publikoko araubideren bati lotuak.
- Ez dago Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 117. artikuluan aurreikusitako araubide orokorraren salbuespenen artean, zeinak zuzenean besterentzea baliozkotuko bailuke (sustatzen dena etxebizitza libreak eraikitzea da, babes publikoko ezein araubideren mende ez daudenak).
- Lursaila lehiaketa publiko edo truke bidez besterendu behar zatekeen.
- Besterentzetik eskuratutako diru-kopuruak, LUOren ondasunak baliatzeko ekintzak gauzatzetik eratorritako diru-sarrerak diren aldetik, aurrez aipatutako 2/2006 Legearen 115. artikulua helburuei atxikiak daude (2/2006 Legearen 113.3.b) artikulua).



Ez garamatza soilik manu hauen hitzez-hitzezko interpretazioak ondorio honetara, baita arauaren adiera teleologikoak berak ere. Helburua soilik da kontratatzaileari dagokionez administrazio publikoekiko kontratazioan buru egin behar duen publikotasuna, lehia eta lehia askea babestea, udalerrikoak direnez interes orokorrari begiratu behar dioten ondasunak eskuratzeko eskaintzarik onena lortzea, eta erakunde publikoen ondasunek balioa galtzea saihestea.

Honegatik guztiagatik uste dut egokia dela adierazitako legezkontasunarekiko salbuespena eta hori dela eta, txostenean jaso behar litzatekeela aurrez transkribatutako paragrafoa.



ABREVIATURAS

AES	Ayudas de Emergencia Social.
AG	Administración General.
BOB	Boletín Oficial de Bizkaia.
BOPV	Boletín Oficial del País Vasco.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
DA	Disposición Adicional.
DFB	Diputación Foral de Bizkaia.
EBEP	Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.
EELL	Entidades Locales.
FPB	Formación Profesional Básica.
IBI	Impuesto sobre Bienes Inmuebles.
IAE	Impuesto sobre Actividades Económicas.
ICIO	Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.
IIVTNU	Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.
IMD	Instituto Municipal de Deportes.
IRPF	Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.
IVTM	Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.
LFPV	Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.
LGS	Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
LRBRL	Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.
NF	Norma Foral.
OA/OOAA	Organismo Autónomo/Organismos Autónomos.
OEP	Oferta de Empleo Público.
PGOU	Plan General de Ordenación Urbana.
PIB	Producto Interior Bruto.
PNSP	Procedimiento Negociado Sin Publicidad.
PPS	Patrimonio Público de Suelo.
PROIMERSA	Promoción Inmobiliaria Municipal de Ermua, SA.
RD	Real Decreto.
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.
RSU	Residuos Sólidos Urbanos.
RTGG	Remanente de Tesorería para Gastos Generales.



SAAD	Sistema de Autonomía y Atención de la Dependencia.
THB	Territorio Histórico de Bizkaia.
TRLCSP	Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.
TVCP	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.
UE	Unidad de Ejecución.

I. INTRODUCCIÓN

El TVCP, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Plan de Trabajo aprobado por el Pleno, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General del Ayuntamiento de Ermua para el ejercicio 2018.

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

- **Legalidad:** Revisión del cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas de presupuesto, ingresos de derecho público, endeudamiento y operaciones financieras, personal, contratación de obras, servicios y suministros, y concesión de subvenciones. Dicha revisión comprende el ejercicio de fiscalización, sin perjuicio de las comprobaciones relativas a otros ejercicios que se estimen necesarias, por tener incidencia en el fiscalizado.
- **Contabilidad:** Conformidad de la Cuenta General con los principios contables que le son de aplicación. La Cuenta General contiene el balance, la cuenta del resultado económico-patrimonial y la memoria del Ayuntamiento, de sus OOAA y de la sociedad pública municipal, así como, la liquidación de los presupuestos del Ayuntamiento y de sus OOAA.

Respecto a las cuentas de la sociedad pública, nuestro trabajo ha consistido en revisar los informes de auditoría llevados a cabo por una firma externa, realizando aquellas pruebas complementarias u otros procedimientos de auditoría que hemos considerado necesarios.

- El alcance del trabajo no ha incluido un análisis específico sobre la eficacia y eficiencia del gasto ni sobre los procedimientos de gestión. No obstante, los aspectos parciales que han surgido en la fiscalización están comentados en el epígrafe III de este Informe.
- Análisis financiero de la situación económica del Ayuntamiento.

El municipio de Ermua, con una población de 15.890 habitantes a 1 de enero de 2018, integra en su organización, además del Ayuntamiento, los OOAA municipales IMD de Ermua (ver A.13) y Fundación Pública “Euskaltegi Público Municipal” (ver A.14), y la sociedad pública Promoción Económica de Ermua, SA o PROMOSA, participada al 100% (ver A.15).

Asimismo, forma parte de la Mancomunidad Comarcal de Debarrena (gestión de RSU y limpieza viaria) y del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa (ciclo integral del agua). Además, es el patrono principal de la Fundación Izarra y mantiene participaciones menores en diversas sociedades (ver A.8).

II. OPINIÓN

II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

PERSONAL

1. Como ya señaló el TVCP en el Informe de Fiscalización del ejercicio 2002, el concepto retributivo para el sistema complementario de pensiones abonado por el Ayuntamiento y el Organismo Autónomo no se ajusta a la normativa reguladora. En 2018, los importes abonados por este concepto han ascendido a 63.544 euros y 4.320 euros, respectivamente.

CONTRATACIÓN

